



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko azaroaren 20a

78 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Legearen proiektua (2. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Legearen proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko azaroaren 11n egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko azaroaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarraren Erregelamenduko 108 eta 125 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

**Lehena.-** Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua premiazko jardunbidez bideratzea.

**Bigarrena.-** Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

**Hirugarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi laneguneko epea irekiko da, 1997ko abenduaren 2ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariet emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko azaroaren 12an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Legearen proiektua**

Foru Lege honek tributu alorreko neurri batzuk biltzen ditu, funtsean lau multzotan banatu daitezkeenak:

Lehenbizikoa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeari dagozkionak (1. artikulutik 3.era bitarte).

Bigarrena. Ondarearen gaineko zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeari dagozkionak (4. artikulua).

Hirugarrena. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari dagozkionak (5 eta 6. artikulua).

Laugarrena. Oinordetzaren gaineko Zergari dagozkionak.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera sartutako alaketan arrazoiak bi dira, funtsean. Alde batetik, zerga hau Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeari egokitu eta harekin bateratu beharra. Beste aldetik, ondare gehikuntzak ekartzen dituen zergak ordaintzeko sistema berri baten ezarpena.

Era berean, eta ondorioak 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, ohiko etxebizitzaren gaineko zerga ordaintzeko erregimena aldatu, Tarifa deflaktatu eta zuzeneko zenbatespen modalitate berri bat ezartzen da, enpresa txiki eta ertainei aplikatu dakiekeena, horien tributazioa errazturik gerta dadin.

Pertsona Fisikoen gaineko Zerga eta Sozietateen gainekoa bateratzearen ondorioz, beharrezkoa da eragiketa lotetsiak, dibidenduengatikoen kenkaria, inbertsioengatikoen kenkaria, berrinbertsioengatikoen salbuespena eta gardentasun fiskalaren erregimena arautzea.

Plusbalioen zerga ordainketan sartutako aldaketa, jatorria tributu erregimen hori erregimen arruntan aldatu zuen ekainaren 7ko 7/1996 Legegintzako Errege Dekretuan dauden xedapenetan duena, batetik, eta beste zerbaiten ondorio da, alegia, Nafarroa unitate ekonomiko berean bete-betean sartuta egotearen ondorioz, oso zaila dela lurraldearen gainerakoan indarra duenaz oso bestelakoa den zerga erregimen bat mantentzea, deslokalizazio fenomenoak gerta litezkeelako.

Gainera, praktikak erakutsi du gehikuntza horiek zergari loturik ez dauden denbora une bat izateak inbertsioak geldiarazi dituela eta, ondorioz, jarduera ekonomikoa neurri batean paralizatu dela. Beraz, errentaren osagai horretarako tratamendu fiskal berria behar da.

Aurreko sistemaren ezaugarria zen zergaren menpeko ondare gehikuntza eta urripenen zenbatekoa murriztapen portzentaiak aplikatuz zehazten zela, eta osagaiaren izaeraren araberrako epe bat iraganik, gehikuntza eta urripen horiek zergatik kanpo gelditzen ziren.

Ondarean emandako urteen araberrako murriztapena aplikatzean bai gehikuntzei bai urripenei, azken hauei inflazioaren eragina kentzen zitzaien, konpentsazio fiskalerrako duten eskubidea galtzen zutelarik.

40. artikuluan ezarritako sistema berriaren bidez, osagaien sujetu pasiboaren ondarean emandako denboraren aipamenak desagertzen dira, bai eta haren araberrera orain arte aplikatu izan diren murriztapen koefizienteak ere, eta ondorioz, ondare aldaketen kargaren eta osagaien sujetu pasiboaren esku dauden denboraren arteko lotura desagertuko da, ordurarte inbertsioetan gertatutako gaitutza kentzeko asmoarekin.

Orientabide berri hau Foru Legearen 41. artikuluan islatzen da, eroste-balioa erregelamendu bidez ezarritako diren koefizienteak, erosketa egin zen urtea kontuan hartuko dutenak, aplikatuz gaurkotuko dela finkatzean, bai eta 71. artikuluan ere, ondare gehikuntza ez-erregularreri aplikatutako karga tasa % 20tik beherakoa izan beharko dela ezartzen baitu.

Lehen bezala, kostubidezko eskualdaketen ondorioz agerian geratzen diren ondarearen gehikuntza garbiak ez dira zergapekoak izanen, baldin

eta beren guztirako zenbatekoa, urte naturalean zehar, 500.000 pezetatik beherakoa bada.

1997ko urtarrilaren 1 baino lehenago erositako ondare osagaien ondareari ekarritako gehikuntzak eta urripenak zehazteko erregimen mistoa prestatzea justifikaturik dago Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legean xedatutakoaren babesean inbertsioetarako egindako planifikazioak, ahal den neurrian, aldatu gabe betetzeko beharragatik.

Ondareko osagaien eskualdaketa bi multzo bereizten dira: 1997ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra eskualdatutakoak eta 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina eskualdatzen direnak.

Lehenbizikoei dagokienez, gehikuntza zehazteko aplikatu beharreko sistema 1996ko abenduaren 31n indarra zuena izanen da, eta 6/1992 Foru Legearen V. tituluaren I. kapituluaren 4. sekzioan dauden arauen araberrera, hau da, orain arte erabili izan dena, baina garrantzizko aldaketa batekin; koefizienteak handitzen dira eta % 14, 28, % 25 eta % 11,11koak izanen dira aurrerantzean, aipatu Foru Legearen 40. artikuluan 2. zenbakiaren letretatik zein dagokion, b), c) eta d), koefiziente hura, hurrenez hurren. Bestalde, gehikuntza hauei sistema berriaren ondorioz sortutako kargaren batez besteko tasa aplikatuko zaie.

1998ko urtarrilaren 1etik eskualdatutako osagaien dagokienez, berriz, sistema mistoa aplikatuko da, aurrekoaz gain, erosi zen egunetik 1996ko abenduaren 31ra arteko denbora ere kontuan hartzen baita, horri aplikatuko zaizkiolarik koefiziente murriztaileak, eta gehikuntza ez-erregularrerarako ezarritako karga tasa berriak.

Azkenik, Errentaren gaineko Zergari dagokienez, honakoak ukitzen dituzten zenbait arau aldatu dira: salbuespenak, ondasun bidezko ordainsariak, ohiko etxebizitzaren tributazio erregimena eta Pentsio Planak.

Salbuesitako errentei dagokienez, beste hiru kasu gehiago bildu dira:

Lehenbizikoak aipatzen du langabeziagatik ordaindutakoa, pagamendu bakarrekoko modalitatean, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan arautu bezala.

Bigarrenak, 10. artikuluan b) letran bildutakoak, maila berean jartzen ditu ez-gaitasunagatik ordainsariei aplikatu ahal zaizkien salbuespen kasu guztiak, Gizarte Segurtasunak edo Administrazio Publikoak ordaintzen dituen kontuan hartu gabe, modu horretan kentzen baita Konstituzio Auzitegiak uztailaren 22ko 134/1996 Epaian antzemandako diskriminazioa. Epaia horrek, esta-

tuko legeei dagokienean, Estatuaren 1994ko Aurrekontuei Orokorre buruzko 21/1993 Legearen 62. artikulua konstituzioaren aurkakoa zela eritzi zion, klase bereziei atxikiriko funtzionario publikoen kaltetan baitoa tratamendua, Gizarte Segurantzaren erregimenen sartuta daudenekin alderatuta.

Eta azkenik, k) letra berria sartzen du, Gizarte Segurantzak edo beronen ordezeko entitateek sujetu pasiboari bere kargura duen seme edo alaba bakoitzeko onartzen dizkioten famili prestazioei buruzkoa.

Ondasunetan egindako ordainketei dagokienez, alde batetik bete egiten da Auzitegi Gorenak 1996ko uztailaren 3an emaniko Epaian xedatutakoa, hartan jantokiaren zerbitzuagatik prestazioen formularen gehieneko zenbatekoa 900 pezetara mugatzea baliogabea zela deklaratu baitzuen, legezko babesik ez izateagatik, eta bestalde, ondasunetan egindako ordainketatzat hartzen diren etatik salbuetsiko da norberaren enpresaren edo taldearen akzioak edo partizipazioak langileei ematea, urtean 500.000 pezetatik edo azken bost urteetan 1.000.000 pezetatik gorakoa ez bada.

Ohiko etxebizitzari dagokionez erregimen fiskal berria sartu da.

Hasteko, ustezko errentaren egozketa kendu egin da.

Bigarrenez, etxebizitza erosteagatik kenkaria aldatu da, eta 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera erositako etxebizitzaren kasuan, kenkariaren oinarria hura erosteko ordaindutako zenbatekoek eta erosketa hori kanpotik finantzatzeari dagozkien korrituek osatuko dutela.

Halaber, adierazi behar da erosketari dagokion kenkariaren oinarria, korrituak kenduta, ez dela izanen 10 milioi pezetatik gorakoa sujetu pasiboaren zergaldi guztietarako, edo 20 milioitik gorakoa famili unitateen kasuan.

Azkenik, 1998ko urtarrilaren 1 baino lehen erositako etxebizitzetarako erregimen iragankorra ezarri da, eta horren arabera, sujetu pasiboek kenkaria egin ahalko dute lehen indarra zuen sistemari jarraikiz, kasu horretan higiezinaren kapitalaren etekin gisa katastroko balioaren 100eko 1,3 egotziko delarik, etekin horri Hirilur Kontribuzioa eta finantza gastuak kenduta.

Pentsio planei dagokienez, zerga oinarria jeisteko gehieneko muga haunditu da, 1.000.000 pezetaraino.

Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, kuo-tako kenkaria ezarri da, orain arte "lanerako tres-

nak" izenez ezagutu denari aplika dakiokiena, sujetu pasiboak berak zuzenean betetzen ohi duen enpresa jarduera aurrera ateratzeko behar diren ondasunak eta eskubideak biltzen dituen kontzeptua, baldin eta errentarako iturri nagusia baldin badu sujetuak. Kenkari hau aplikatu ahal zaie, halaber, zenbait baldintza betetzen dituzten entitateetako partizipazioei.

Sozietateen gaineko Zergari sartu zaizkion aldaketak, 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina indarra izango duten haiek, karga-tasari, ezarpen bikoitzarengatik kenkariari, enplegua sortzearen ondoriozko kenkariari eta beste hobekuntza tekniko batzuei dagozkie. Era berean, 1998ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, 6. artikuluan arautu da establezimendu iraunkorren tributazio-araubidea, Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren ondorioz. Lehen Xedapen Gehigarrian, berriz, ezarri da zerga-oinarria murrizteko aukera, Inbertsioetarako Erreserba Berezirako dotazioak egiteagatik, 1998an hasitako lehen ekitaldiko mozkinen kargura.

Karga-tasa orokorrari buruzkoan, eskala bat jarri da halako moldez non 15.000.000 pezetarainoko likidazio-oinarriari 100eko 30 kargatuko zaion eta gainerakoari, 100eko 35.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 24/1996 Foru Legeak ezarpen bikoitzarengatik kenkariari tratamendu berria ekarri zion arren, ezarpen bikoitza agertzen den momentutik bertatik kentzeko bidea ematen duena, baloreen eskualdaketan kenketa egiteko aukera emanez, hainbat akats azaleratu dira, eta kasu batzuk agertu non errentak zerga-oinarrian sartzea eta kenketak zekarren eliminazio-sistemaren aplikazioa ez ziren behar bezala uztartzen. Zuzendu beharra zegoen, beraz.

Aipatu erregulazioa aldatu egin da eta dibidendu banaketak depreziazioa baldin badakar, zerga-ondorioetarako konputatu ahal da. Baina bai aipatu kasuan, bai dibidenduaren banaketak errenta-integratuz ez dakarrenean, baloreak duen erosketa-balio txikiagotzat jo daitekeelako, ezin izango da ezarpen bikoitzarengatik kenketa egin, hurrengo salbuespenarekin: subjektu pasiboak frogatzea balorearen depreziazioaren pareko kopurua Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartu dela eta kenkarirako eskubiderik gabe tributatu duela, edota Errentaren gaineko Zergan sartu dela, aurreko jabeek lortutako errenta gisa, eskualdaketa dela-eta.

Era berean, beste artikulua bat sartu da, 60 bis artikulua, alegia, ezarpen bikoitza ekiditeko salbuespenaren metodoaren aplikazioa atzerrian

diren establezimendu orokorretatik datozen errentei hedatzeko: kapitalen esportazioen neutralitatearen hatsapenari beste bultzada bat ematen zaio, beraz. Hartara, atzerrian diren establezimendu iraunkorretatik datozen errentek kenkaria izango dute, kuota osoaren 100eko 100, alegia, baldintza jakin batzuk betetzen direnean, atzerriko sozietateetatik datozen dibidenduei ezartzen zaien salbuespen-metodoa erabiltzen den kasuen parekoak.

Enplegua sortzeagatik 200.000 pezetako kenketa dela-eta, bide ematen zaio horri mugagabeko lan-kontratua duen plantilaren batezbestekoa gehitzea gertatzen denean, plantila guztiaren batezbestekoa gutxitu bada ere.

Azkenik, kendu egin da esportazio-jardueraren ondoriozko kenketari Zergari buruzko Foru Legeko 67. artikuluko 3. zenbakiak ezarri dion muga.

7. artikulua aldaketa sartu dio Oinordetzaren gaineko Zergari, helburu honekin: jabetza dohainik zatitu eta kontsolidatzearen ondoriozko tributazioa, zatiketa kostu bidez gertatzen denerako Ondare Eskualdaketei buruzko Zergak ezarritakoarekin parekatzea.

Azkenik, Bigarren Xedapen Gehigarriak lan-sozietateen onurak arautzen ditu eta martxoaren 24ko 4/1997 Lege berriak babesten dituen sozietateei zabaldu zaizkie horiek.

**1. artikulua.** 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen ondoko artikulua honako edukia izanen dute.

Bat. 5.artikulua, 3. zenbakia, eta 4. zenbakiaren e) letra.

"3. Foru Lege honetako 47. artikulutik aitzinako artikuluek aipatzen duten zerga-egozketa edo gardentasun erregimenean, errenta erdiesten dela usteko da, erregimen honen menpeko entitateei buruzko artikuluak aipatzen dituzten oinarriak subjektu pasiboari egozterakoan.

"e) Zerga-egozketa edo gardentasun erregimena duten entitateen oinarrien egozketak."

Bi. 9. artikulua

"9. artikulua. Eragiketa lotetsiak.

Eragiketa lotetsiak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 28. artikuluan definitzen dira, eta horien balorazioa, aipatu artikulua arabera eginen da."

Hiru. 10. artikulua, a) eta b) letren erredakzio berria eta letra baten gehitzea, k) hain zuzen.

"a) Gizarte Segurantzak, edo horren ordeko entitateek, erabateko ezintasun orokorra edo baliaezintasun handia dela eta subjektu pasiboari onartutako prestazioak. Era beran, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera, aurreko prestazioak osabetetzen dituzten diru kopuruak, hots, erabateko ezintasun orokorra edo baliaezintasun handi egoerara iragateko unean, subjektu pasiboak onarturik duen diru kopurua jasotzea bermatzen duten diru kopuruak. Halaber, salbuespenak egonen dira Gizarte Segurantzaren kasuan kasuko Entitate Kudeatzaileek emaniko langabezi prestazioak, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuan arautua dagoen ordainsari bakarra modalitatean eginak direnean eta beti ere, arau horretan aurreikusitako xedeetara zuzendu eta hango kasuetan badaude.

Aurreko paragrafoan aurreikusten den salbuespenak ondoko baldintzak izanen ditu: subjektu pasiboak, sozietate laboral batean edo lan elkartuko kooperatiba batean integratu bada, akzioari edo partizipazioari bost urtetan eutsi beharko dio, eta langile autonomoa bada, denbora berean eutsi jarduketari.

b) Administrazio Publikoek onarturiko ezintasun edo gaieztasun pentsioak, urripen fisikoa edo psikikoak, lan orotarako erabateko ezintasun iraunkorra sortzen duenean edota baliaezintasun handia.

Lau. 11.3"3. Errentak esleitzeko erregimena ez zaie aplikatuko aurreko 1. zenbakian aipatzen diren entitateei, baldin eta subjektu pasibotzat hartzen badira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 11. artikulua xedatutakoaren arabera.

Bortz. 12.4"4. 1 zenbakiko b) letrak aipatzen dituen subjektu pasiboek Espainiako Estatuan izandako etekin eta ondare gehikuntzen arabera ordainduko dituzte zergak, Foru Lege honen Lehen Xedapen Gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

Horretarako, subjektu pasiboak Administrazioaren aurrean ordezkaturiko dituen pertsona bat izendatzera behartuta daudenean, izendapena, Ogasun eta Ekonomia departamenduaren aitzinean kreditatu beharko da, hura egindako egunetik kontatzen hasi eta bi hilabeteko epean.

Aurreko paragrafoan ezarritako edozein obligazio ez betetzea zerga alorreko arau-hauste sinplea izanen da, eta 25.000 pezetatik 1.000.000 pezetara bitarteko isunarekin zehatu ahalko da."

Sei. 16. artikulua, azken paragrafoa.

1. Ondokoak ez dira inolaz ere ondasunezko ordainsaritzat hartuko: Enpresetako kantina eta



jantokietan edo ekonomato sozialetan ematen diren prezio merketuko emateak. Enpresetako jantokietan eginiko prezio merketuko ematzat hartuko dira zeharkako zerbitzu emateak, beti ere, erreglamendu bidez xedatuko den zenbatekoa ez badute gainditzen.

2. Langileriaren zerbitzu sozial eta kulturaletara zuzendutako ondasunen erabilera.

3. Sozietateek beren akzio edo partizipazioak, edota Merkataritza Kodearen 42. artikulua zentzuan taldea osatzen duen edozein sozietateren akzio edo partizipazioak, jarduneko langileei dohain edo merkatu-prezio normalaren azpitik emandako ondasunezko ordainsariak, urtean 500.000 pezetatik beherakoak badira edo 1.000.000 pezetatik beherakoak azkeneko bortz urtetan. Eta betiere baldintza hauek bete beharko dira:

1. Eskaintza baldintza berdinetan egitea enpresako langile guztientzako.

2. Langile hauek, beren ezkontide, edo bigarren gradura arteko familiartekoei, denen artean enpresaren partizipazioen %5 baino gehiago ez izatea. Partizipazio hauen eskuratzea dela eta gainditzen bada %5 hori, salbuespenak %5a osatu arte emandako partizipazioak hartuko ditu.

3. Baloreak, gutxienez, hiru urtetan gordetzea.

Aurreko 3. idazatian aipatutako epea ez bete-tzeak, aitorten eta likidazio osagarria aurkezteko obligazioa sortuko du, dagozkion berandutza korrituekin, eta aurkeztu beharko da ez-betetze egunetik kontatzen hasi eta Zerga honegatik egin beharreko lehen aitortpena egiteko epearen bukaera eguna arte. Akzioen edo partizipazioen eskualdatzetik ondorioztatutako ondare gehikuntza eta urripenak zehazteko, eskuratze balorea kalkulatzeko, ondasunezko ordainsaritzat hartu ez den zenbatekoa hartuko da kontutan.

Zazpi. 29. artikulua.

"Fondo berekietan parte hartzeagatik lortutako etekinak.

Edozein entitateko fondo berekietan parte hartzeagatik lortutako etekin osotzat hartuko dira sozietate edo elkarteetako dibidenduak, batzarretara joategatiko primak eta mozkinen partaidetzak. Baita bazkide, akziodun edo elkarkide denean, entitate batetik jasotako edozein onura ere.

Halaber, aktibo mota orotatik ateratako etekinak, akzio liberatuen ematea izan ezik, zeinek, estatutuaren bidez edo organo sozialen erabakiz, sozietate edo elkarte bateko mozkin, salmenta, eragiketa, sarrera edo antzeko kontzeptuetan

parte hartzeko ahalmena ematen duten, norbearen lanaren soldata ez denean kausa.

Bere zerga oinarria osatzeko, aurreko lerroaldeetan aipatzen diren etekinak, egoitza lurralde espainiarrean duten sozietate, elkarte edo entitateetan atereak badira, ondoko koefizienteekin biderkatuko dira:

a) 1,40 orokorki.

b) 1,25 Sozietateei buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.2 artikulua aipatzen dituen entitateek atereak badira.

c) 1,20 Sozietateei buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50. artikulua 3. zenbakian b) letrak aipatzen dituen Sozietate Laboralek atereak badira.

d) 1,00 Sozietateei buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 50.5 eta 6 artikulua aipatzen dituen entitateek atereak badira; ekainaren 21eko 5/1994 Foru Legearen araututako kooperatiba babestuak eta bereziki babestuak; ekarpenen itzulketa duten kapital urripenak eta jaulkipen primaren banaketa. Halaber portzentai hau aplikatuko zaie hobera jaso duten etekinei edo salbuespenei dagozkien mozkinetako dibidendu edo partizipazioei, azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legearen 19. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, edo abenduaren 29ko 22/1993 Legearen, edo Bizkaiko ekainaren 24ko 5/1993 Foru Arauetan, Gipuzkoako ekainaren 26ko 11/1993 Foru Arauetan, edo Arabako uztailaren 5eko 18/1993 Foru Arauetan azaltzen denari jarraikiz; eta Bizkaiko 3/1996, Gipuzkoako 7/1996 eta Arabako 24/1996 Arauetan ezarritako murrizketak aplikagarri dituzten lehenengo bi zergaldiei dagozkien etekinetatik heldu diren dibidenduei. Ondorio horietarako, erreserben banaketa kasuan, aplikatutzat joko dira erreserba horiei aplikaturiko lehenengo kopuruak.

Aurreko letretan xedatutakoa aplikatzeko, kontuan hartu beharko da entitateak zein egoera zuten banatzen den etekina lortu zuen unean.

Zortzi. 30. artikuluko 1. idazatiaren azken lerroaldea.

"Etekin implizituen konputua, integrazioa eta konpentsazioa arau hauei jarraikiz egingen da:

1. Etekin bakoitzaren konputua bakarka egingen da titulu edo aktibo bakoitzeko.

2. Etekin implizitu positiboak zergaren zerga-oinarrian integratuko dira.

3. Ez da bidezko izanen etekin implizitu negatiboen integrazioa.

4. Eroste eta besterentzearen gastu osagarriak etekinaren koantifikaziorako konputatuko dira, behar bezala frogatzen badira."

Bederatzi. 31. artikuluari 7. idazatia gehitu zaio.

"7. Irudia erabiltzeko eskubidea lagatzetik edo erabiltzeko baimena ematetik heldu direnak."

Hamar. 35.1 artikulua, azken lerroaldea.

"Enpresario, profesional, artista edo kirolaritzat hartuko dira, besteak beste, gisa horretan agertzen direnak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga edo Lizentzia Fiskalaren Tarifetan."

Hamaika. 36.4 artikulua.

"4. Enpresa edo profesionalen jardueri atxikiarik dauden eta horiek betetzeko beharrezkoak diren mugituezinako material edo ez-materialeko elementuak eskualdatzean agerian gelditzen diren ondare gehikuntzak ez dira kargatuko, beti ere, besterentzearen zenbateko osoa arestian aipatutako elementuetatik edozeinetan berriz inbertsion bada, azken horiek ere atxikiak izanen direlarik, Sozietateen gaineko Zergaren ondorioetarako ezarritako baldintza berberetan.

Egindako berrinbertsioaren zenbatekoa besterentzearen zenbateko osoa baino txikiagoa izanez gero, kargatik kanpo geldituko da inbertitutako kopuruari dagokion ondare gehikuntzaren proportzioa.

Hamabi. 40. artikulua.

40. artikulua. Gehikuntza edo urripenen zenbatekoa. Irizpide orokorrak.

Gehikuntza edo urripenen zenbatekoa izanen da:

a) Kostubidezko edo irabazpidezko eskualdaketen kasuan, ondare osagaien eroste-balioaren eta eskualdatze-balioaren arteko aldea.

b) Gainerako kasuetan, ondare osagaien eroste-balioa edo zati proportzionalena, hala denean".

Hamahiru. 41. artikulua.

"41. artikulua. Eroste eta eskualdatze-balioak.

1. Eroste-balioa honako hauen batura izanen da:

a) Erosketa egin deneko zenbateko erreala, edo hala balitz, ondorengo artikulua aipatzen duen balioa.

b) Erositako ondasunetan eginiko inbertsio eta hobekuntzen kostua, eta erosleak eskualdaketa

egiteagatik ordaindu dituen gastuak eta zergak, korrituak ezik.

Balore hau gaurkotuko da erregelamendu bidez ezarriko diren koefizienteak aplikatuz, erosketa, inbertsio edo hobekuntza hori egin zen urtean oinarriturik, eta gastu eta tributuen kasuan, berriz, sortu ziren urtean.

Aurreko idazatian xedatutakoaren ondorioetarako, erabat askaturiko akzioak direnean, horien antzinasuna izanen da zein akziotatik heldu diren, horiei dagokiena.

Balore hori gutxituko da, bidezko denean, ondoko kontzeptuetan:

1. Erregelamenduaren arauera ezarritako amortizazioen zenbatekoa.

2. Kapitalaren murrizketa dela eta, eginen diren ekarpenen itzulketaren zenbatekoa. Zenbateko hori, 39. artikulua 6. zenbakiko d) letrak aipatzen du.

3. 43. artikulua 1. zenbakiko l) letrak xedatutakoaren arauera, ondare gehikuntza bezala kalifikatzen ez diren harpidetze-eskubide besterenganatuen zenbatekoa.

Aipatutako zenbatekoak gaurkotuko dira erregelamendu bidez ezarriko diren koefizienteak aplikatuz, amortizazioak, itzulketak eta besterentzeak egin ziren urtean oinarriturik.

2. Besterenganatzea egin deneko zenbateko erreala balioa eskualdaketa izanen da, edo hala balitz, ondoko artikulua aipatzen duena. Zenbateko hori kenduko zaizkio aurreko zenbakiko b) letrak aipatzen dituen gastuak eta zergak, eta hori eskualdaketa egiten dutenek ordaintzen dituztenean.

3. Besterenganatzearen balioaren zenbateko erreala jasotakoa izanen da, beti ere, merkatuan dagoen ohizko baliotik aldentzen ez bada, hala ere, horrela balitz, merkatukoa aintzat hartuko da.

4. 51. artikulua 3. zenbakian xedatutakoa kendu gabe, ondare gehikuntza edo urripena zehazteko, eperako eragiketen edo prezio gerortua duten eragiketen kasuan ondarearen aldaketa gertzen den unea hartuko da oinarritzat.

Hamalau. 43.1.a) artikulua

"a) Balore-merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeak aurreikusitako baloreen bigarren mailako merkatu ofizialeko batean negoziatzeko onarturiko baloreetatik sortzen badira, edo bigarren balore-merkatuetako batean, apirilaren 4ko 710/1986 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraikiz, eta sozietate edo entitateen fondo berekietan

parte hartzearen adierazgarriak badira, gehikuntza edo urripena lortuko da eroste-balioaren eta eskualdatze-balioaren arteko aldea atereaz. Zehaztuko da, kotizatzen den merkatu ofizialean egun horretan duen kotizazio balioaren bidez, edo bestela, itundutako prezioaren bidez, baldin eta kotizazioa baino handiagoa bada.

Partzialki liberaturiko akzioak direnean, berauek izanen duten eroste-balioa izanen da subjeto pasiboak ordaindutako benetako zenbatekoa.

Gutziz liberaturiko akzioak direnean, eroste-balioa, bai horienak bai horien jatorri direnenak, honela aterako da: kostu osa titulu kopuruaz zatituta, tituluak zaharrak nahiz liberatuak izan.

Hamabost. 43.1.b) artikulua, azken lerroaldea.

Partzialki liberaturiko akzio edo partaidetza sozialak direnean, eroste-balioa izanen da subjeto pasiboak benetan ordainduriko zenbatekoa. Gutziz liberaturiko akzio edo partaidetza sozialak direnean, eroste-balioa, bai horienak bai horien jatorri direnenak, honela aterako da: kostu osa titulu kopuruaz zatituta, tituluak zaharrak nahiz liberatuak izan.”

Hamasei. V. Titulua, I. Kapitulua, 5. Sekzioa.

“5. Sekzioa. Gardentasun fiskalaren erregimena

47. artikulua. Sozietate gardenak.

1. Sozietate gardenak honako hauek izanen dira:

a) Aktiboaren erdia baino gehiago balorez osaturik daukaten sozietateak eta ondasun edukitze hutsezko sozietateak, baldin eta horietan, ekitaldi sozialeko laurogeita hamar egunetan baino gehiagotan, ondoko baldintza hauetako edozein gertatzen bada:

a') Kapital sozialaren 100eko 50a baino gehiago ahaide talde batena izatea, alegia, ahaidetasun zuzen edo alboko, odolkidetasun edo kidetasunaren bidez, laugarren maila bitarte eta hori ere barne dela, loturik dauden pertsonak.

b') Kapital sozialaren 100eko 50a baino gehiago 10 bazkide edo gutxiagorena izatea.

Zenbaki honen ondorioetarako, ondasun edukitze hutsezko sozietateetat hartuko dira, beren aktiboaren erdia baino gehiago enpresa edo lanbide jardueri loturik ez dutenak, jarduera horiek Foru Lege honen 35. artikuluan zehazten direlarik.

Ondare elementu bat enpresa edo lanbide jardueri atxikirik ote den erabakitzeke, Foru Lege

honen 7. artikuluan xedaturik dagoenari eginen zaio kasu.

Aktiboaren eta enpresa edo lanbide jardueri atxikirik ez dauden ondare elementuen balioa, kontabilitatek ateratzen dena izanen da, baldin eta kontabilitateak zuzen azaltzen badu sozietatearen ondare egoera benetakoa. Horrela ez bada, merkatu-balioa hartuko da.

Ez dira balore gisa konputatuko, a) letra honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, aktiboaren erdia baino gehiago balorez osaturik daukaten sozietateei dagokienean, honako hauek:

1. Lege edo erregelamenduzko eginbeharrak betetzeko izaten direnak.

2. Enpresa edo lanbide jarduerak burutzearen ondorioz ezartzen diren kontratuzko harremanetatik sorturiko kreditu-eskubideak dakartzatenak.

3. Balore-Sozietateek beren xedea den jardueran aritzearen ondorioz dauzkatenak.

4. Boto eskubideen 100eko 5a gutxienez ematen dutenak eta partaidetza zuzendu eta kudeatzeko helburuz edukitzen direnak, beti ere, ondorio hauetarako, baliabide material eta pertsonalen antolaketa baldin badago, eta entitate partaidetua ez bada agertzen ez letra honetan ez hurrengo bietako batean.

a) letran aurreikusitakoaren ondorioetarako, ez dira kontatuko balore gisa edo enpresa edo lanbide jardueri atxikirik ez dauden ondare elementu gisa, honako hauek: horien eroste-balioak entitateak lortu dituen eta banatu ez diren etekinen zenbatekoa gainditzan ez duenean, beti ere etekin horiek heldu badira enpresa edo lanbide jardueretatik, muga izanik bai urtean berean bai aurreko 10 urteetan lorturiko etekinen zenbatekoa.

b) Sozietateek ekitaldiko dirusarreraren 100eko 75a baino gehiago lanbide jardueretatik lortzen dutenean, baldin eta profesionalak, jarduera horiei zuzenean edo zeharka loturik dauden pertsona fisikoek, parte hartzeko eskubidea dutenean, bai beraiek bakarrik bai beren ahaideekin laugarren maila bitarte hori barne, beti ere haien etekin 100eko 50ean gutxienez ere.

c) Sozietateek ekitaldiko dirusarreraren 100eko 50a baino gehiago pertsona fisikoaren arte edo kirol jardueretatik lortzen dutenean, edo artista edo kirolariekin zerikusirik daukan beste edozeinetatik, baldin eta horien eta laugarren mailara bitarteko (hori barne) ahaideen artean sozietate haien etekinen 100eko 25ean bederen parte hartzeko eskubidea badute.



b) eta c) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, jarduera profesional, artistiko eta kirol arlokoztzat hauek joko dira: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako edo Lizentzia Fiskaleko Tarifen 2 eta 3. Sekzioetan izaera hori dutenak, alde batera utzi gabe sozietateak matrikulatuta egon behar duela haien 1. Sekzioko jarduera korrelatibo edo beretsuan.

2. Ez da inolaz ere aplikatu ahaliko gardentasun fiskalaren erregimena, inguruabar hauetakooren bat suertatzen den zergaldietan:

a) Sozietatearen kapitalean den partaidetzaren balore errepresentagarriak negoziatorako onartuak daudenean bigarren mailako balore-merkatu ofizialeko batean. Merkatu horiek Balore-Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurreikusitak daude.

b) Zuzenbide Publikoko pertsona juridiko bat artikulua honetako 1. zenbakiko a) letran azaltzen diren sozietateetako baten kapitalaren 100eko 50aren baino kopuru handiagoaren titularraren denean.

c) Bazkide guztiak gardentasun fiskalaren erregimenaren menpean ez dauden pertsona juridikoak direnean.

48. artikulua. Gardentasun erregimena. Bazkideei egin egozpena.

1. Gardentasun fiskalaren erregimenean, sozietate gardenek lorturiko likidazio-oinarri positiboak bazkideei egokitzen zaizkie, Zerga honetako sujetu pasiboak, Espainiako lurraldean bizi direnak.

2. Bazkideei egozten zaien likidazio-oinarria Sozietateen gaineko Zergako arauetatik ateratzen dena izanen da.

Likidazio-oinarriaren zenbatekoan geroago egiten den edozein aldaketa gertatuz gero, beti ere Administrazioaren ekintzen ondorio bada edo edozein eratako errekurtsioen ebatzpenaren ondorio, halakoetan ere diferentzia bazkideei egotziko zaie.

Likidazio-oinarri negatiboak ez dira egotziko, eta horiek murriztu egin ahaliko dituzte sozietateak hurrengo eta aurrerantzeko zazpi urteetan amaitzen diren zergaldietan lorturiko zerga-oinarri positiboak.

3. Espainiako lurraldean bizi diren bazkideei hauek egotziko zaizkie:

a) Sozietate gardenak Sozietateen gaineko Zergaren likidazioan aplikatu duen kuotako kenkari eta hobariak, egotzitako likidazio-oinarriei dago-

kien proportzio berean. Kenkari eta hobari hauek bazkideen likidazioan integratuko dira, kuota gutxituz, Zerga honen berariazko arauari jarraituz.

Aurreko lerroaldean adierazitakoa hala izanik ere, Espainiako lurraldean kokaturiko edozein eratako entitateen fondo propioetan partaidetza izateagatik lorturiko etekinei dagokien dibidendoen egozpen bikoitza dela eta egiten den kenkariari, Foru Lege honen 29 eta 74.8.a) artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaio.

b) Sozietate gardenari dagozkion ordainketa zatikatuak, konturako atxikipenak eta dirusarrerak.

4. Honakoetan ez da tributatu Zerga honenagatik: likidazio-oinarri positiboaren egozketa jasan behar duten bazkideei dagozkien eta sozietatea gardentasun erregimenean dagoen zergaldietatik heldu diren dibidendu eta mozkinetako partaidetzak. Dibidendu edo mozkinetako partaidetza hauen zenbatekoa, gerta daitezkeen ondore gehikuntza edo urritzeak zehazteko ondorioetarako, ez da integratuko egozketa jasan duten bazkideen akzio edo partaidetzen erosketa-balioan. Baloreak egozketaren ondoren erosten direnean, horien erosketa-balioa gutxitu egiten da zenbateko horretan.

49. artikulua. Partaideen identifikazioa.

Sozietate gardenek beren kapitaleko partaidetzen balore adierazgarriak mantendu beharko dituzte edo bestela izendun bihurtu.

Baldintza hori betetzen ez bada, zerga arloko arau-hauste arintzat joko da, 25.000tik 1.000.000 pezetara bitarteko zehapena izan dezakeena, arau-haustea burutu den zergaldi bakoitzeko. Horren erantzule solidarioak izanen dira sozietatearen administratzaileak, salbu aurreko lerroaldean ezarritakoa bete dadin behar diren neurriak espreski proposatu dituztenak, gainerakoek onartuak ez dituztelarik.

Zenbaki honen lehenbiziko lerroaldean ezarritako beharkizuna ez betetzeagatik, zenbait bazkide edota denak ezezagun suertatzen badira, egozten ahal ez den zerga-oinarriaren zatiak tributatu du Sozietateen gaineko Zergan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eskala-tasa marjinal altuenaren balio bereko tasan.

50. artikulua. Egozketa eta banakatze irizpideak.

1. Egozketak egiten zaizkie, sozietate gardenaren zergaldia amaitzen den egunean bazkide izaerari loturik dauden eskubide ekonomikoak agertzen dituztenei, sozietatearen estatutuaren azaltzen den proportzioan eta, halakorik ez bada,

sozietatearen kapitalean duten partaidetzaren arabera.

2. Sozietate partizipatuaren ekitaldia itxi eta biharamunean eginen da egozketa, non eta ez den erabakitzen egotziko direla jarraian ixteko data hartan berean.

Egiten den aukera adierazi beharko da ondorioak eraginen dituen Zergaren lehenbiziko aitopenean, eta hiru urtez mantendu beharko da.

3. Likidazio oinarrien indibidualizazioa eginen da honako arau hauen arabera:

1. Harako 47. artikuluko 1. zenbakiko a) letran aipatzen diren entitateei dagozkienak eginen da Foru Lege honetan bertan kapital etekinen indibidualizaziorako ezarritako arauen arabera.

2. Harako 47. artikuluko 1. zenbakiko b) eta c) letretan aipatzen diren entitateei dagozkienak eginen da haietako bazkide direnei, baloreen titulartatea amankomuna bada ere."

Hamazazpi. 51. artikulua.2.

"2. Zerga-gardentasun erregimenean dauden entitateen likidazio oinarriak Espainiako Estatuko lurraldean bizi diren bazkideei egotziko zaizkie, Foru Lege honetako 50. artikuluan xedatutakoaren arabera."

Hemezortzi. 57. artikulua.

"57. artikulua. Etekin erregularrak.

48. artikulua aipatzen dituen etekin erregularrak eat oinarri likidagriak integratuko dira eta elkar konpentsatuko dute inolako mugarik gabe."

Hemeretzi. 67. artikulua.

"67. artikulua. Zerga-oinarriko murriztapenak.

Zerga-oinarriaren zati erregularra ondoko kopuruen zenbatekoan baizik ez da murriztuko:

1.1. Gizarte Prebisioko Mutualitateei Gizarte Segurantzaren Erregimenetako batean sartuta ez dauden profesionalak ordaindutako kopuruak, horien xedea heriotza, alarguntza, umezurtza, jubilazioa, istripuak, gaisotasuna edo lanerako ezgaitasuna kasuak babestea denean, edo ezkontza, seme-alabak edukitzea, seme-alabak edo heriotza kasuetarako ordainsariak ematen badituzte.

2. Gizarte Prebisioko Mutualitateei Gizarte Segurantzaren Erregimenetako edozeinetan sartuta dauden profesionalak edo enpresarioek ordaindutako kopuruak, aurreko 1. idatzian aipatutako kasuetakoren bat babesten badituzte.

3. Gizarte prebisioren alorrean Pentsio Planen alternatiba gisa aritzen diren Gizarte Prebisioko Mutualitateei bere kontura diharduten langileek edo bazkide langileek ordaindutako kopuruak, aurreko 1. idatzian aipatutako kasuak babesten badituzte, eta langabezia aipatu bazkide langile horiendako.

4. Pentsio Planetako partaideek egiten dituzten ekarpenak, sustatzaileak plan horietan edo gizarte prebisioko sistema alternatiboetan eginda-koak ere, besteren konturako lan etekinagatik egotzi baldin bazaizkie.

Murriztapen hauen gehieneko mugatako honako kopuruen artean txikiena aplikatuko da:

a) Ekitaldi horretan lan, enpresa edo lanbidetik eskuratutako etekin garbien baturaren 100eko 15, bai eta Foru Lege honen 47. artikulua 1. zenbakiko b) eta c) letrek aipatzen dituzten sozietate gardenek egotzitakoak ere.

b) 1.000.000 pezeta urtean.

2. Ezkontideari erabaki judizialaren bidez ematen zaizkion konpentsazio pentsioak eta mantenerako urtekoak, sujetu pasiboaren seme-alaben alde finkatutakoak salbu."

Hogei. 68. artikulua.

"68. artikulua. Likidazio-oinarri ez-erregularra.

Likidazio oinarri ez-erregularra zerga-oinarriaren zati ez-erregularrak osatuko du, eta honek, bi zati izanen ditu:

a) Etekin ez-erregularrak.

b) Ondare gehikuntza ez-erregularrak."

Hogeitabat. 71. artikulua.

"71. artikulua. Karga-tasa.

1. Etekinak osatzen duten likidazio-oinarri ez-erregularraren zatia ondoko tasen arteko handienarekin kargatuko da:

a) Karga eskala oinarri horren 100eko 50ari aplikatuzetik heldu den batez besteko tasa.

b) Foru Lege honen 70. artikulua 2 zenbakian zehaztutako batez besteko karga-tasa.

2. Ondare gehikuntzek osatutako likidazio oinarri ez-erregularraren zatia aurreko zenbatekoan xedatutakoari jarraikiz kargatuko da, baina batez besteko karga-tasa ez da ehuneko 20tik gorakoa izanen."

Hogeita bi. 72. artikulua, bigarren lerroaldea.

"Sujetu pasiboaren batez besteko karga-tasa, 70. artikulua 2. zenbakiak aipatzen duena,

ehuneko 30eko tasa baino handiagoa baldin bada, batez besteko tasa horren eta ehuneko 30eko tasaren arteko aldea, enpresa edo lanbide jardueren etekin garbi positiboaren barnean dauden ondare gehikuntzen zenbatekoari aplikatzearen ondoriozko kopuruan murriztuko da kuota osoa."

Hogeita hiru. 74.1.a) artikulua, azken lerroaldea.

"Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako 73. legeak eta Kode Zibilaren 172. eta ondoko artikuluek hurrenez hurren jorratzen dituzten seme-alabatzat hartze eta etxean hartzeko kasuetan eta tutoretza kasuetan ere aplikatzen ahalko da kenkari hori, beti ere betebeharrak eta baldintza berak betetzen badira."

Hogeita lau. 74.1.d) artikulua, bigarren lerroaldea.

"Era berean, kenkari hau aplikatzea bidezko izanen da ezintasuna duen pertsonak zenbaki honen a) letrak jorratzen dituen tutoretza eta seme-alabatzat edo etxean hartze harremanak dituenen, baldin eta d) letra honen arestiko lerroaldean adierazitako errenta mailari eta ezintasun graduari buruz aipatzen direneak gertatzen badira."

Hogeita bost. 74.6 artikulua.

"6. Kenkariak enpresa edo lanbide jardueretan.

Zerga honen sujetu pasiboei, enpresa edo lanbide jardueretan aritzen badira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko arauetan enpresari inbertsiorako ezarriko edo ezartzeko dauden bultzagarri eta pizgarriak aplikatu ahalko zaizkie kuotan egin beharreko kenkari gisa, kenkariaren portzentaia eta mugak berdinak direlarik.

Halere, pizgarri horiek, arau bidez hala ezartzen denean baizik ez zaizkie aplikatu ahalko zerga-oinarrien zenbatespen objektiboaren erregimenaren menpean dauden sujetu pasiboei, erregimen horren ezaugarri eta beharkizun formalak kontuan harturik."

Hogeita sei. 74.8.a) artikulua.

"8. Bestelako kenkariak.

a) Fondo propioetako partaide izateagatik lortutako etekinek zerga-oinarrian sartutako kopurua, Foru Lege honen 29. artikulua aipatzen duena, lortutako etekin osoan gutxitzearen ondorioz sortutako zenbatekoa duen kenkarirako eskubidea emanen dute.

Ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen bidez araututako kooperatiba babestuen eta bereziki babestuen itzulketei dagokien ezarpen bikoitzagatik kenkaria Foru Lege horren 34. artikuluan xedatutakoari jarraikiz eginen da.

Hogeita zazpi. 79. artikulua.

"79. artikulua. Kuota diferenziala.

Kuota diferenziala, kuota likidoa aitzineko artikulua aurreikusten duen kenkariaren zenbatekoan, Foru Lege honetan aurreikusten diren atxikipen eta konturako beste pagamenduen zenbatekoan eta gardentasun fiskalaren erregimenaren menpean dauden sozietateek ordaindutako kuota gisa egotzitako zenbatekoetan gutxitzearen emaitza izanen da."

Hogeita zortzi. 95.2 artikulua.

"2. Zerga honen kontura atxikipenak egin behar diren kopuruak jasotzen dituenak sortutako kontraprestazio osoarengatik kontatuko ditu haiek.

Atxikipena egin ez bada edo behar zuen zenbatekoa baino gutxiagokoa izan baldin bada, jaso duenak kuotatik kenduko du atxiki behar zen kopurua.

Sortutako kontraprestazio osoa frogatzerik ez dagoenean, Tributu Administrazioak zenbateko osoa bezala kontatu ahalko du bidezkoa den atxikipena egin ondoren benetan kobratutako kopurua izanen den kopuru bat. Kasu horretan kuotari kenduko zaio, konturako atxikipen gisa, benetan jasotakoaren eta zenbateko osoaren arteko aldea.

Zenbaki honetan xedatutakoa ez da aplikatuko ondotik ematen diren kasuetan, horietan jasotzen duenak benetan atxikiriko kopuruak baizik ez baititu kendu ahal izanen:

a) Legez ezarritako lansariak, sektore publikoak ordaindutakoak.

b) Lanbide edo arte jardueren etekinak.

c) Nekazaritza edo abeltzaintza jardueren etekinak.

d) Erregelamendu bidez zehaztuko diren beste kasu batzuk."

Hogeita bederatzi. 102. artikulua.

"102. artikulua. Ofizioz egindako itzulketa.

1. Sorburuan atxikitako kantitateen, kontura egindako pagamenduen eta gardentasun fiskalaren erregimenaren menpean dauden sozietateek ordaindutako kuota gisa egotzitako zenbatekoen batura ezarritako epean aurkeztutako autolikidazioaren emaitza baino handiagoa denean, eta

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak behin-behineko likidaziorik ez badu egin deklarazioa aurkezteko epea amaitu eta ondoko sei hilabeteen barrenean, ofizios itzuli beharko du, ondoko hilabetearen barruan, autolikidatutako kuotarekin batera sarturiko soberakina, eta hori bidezkoak izan daitezkeen geroko behin-behineko likidazioak egitearen kaltetan izan gabe.

2. Behin-behineko likidazioa aurreko zenbakiak aipatzen duen sei hilabete epe horren barrenean egin baldin bada, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ofizios itzuliko beharko du, ondoko hilabetearen barrenean, likidazio horren kuota-ekin batera sartutako soberakina.

3. Itzulketa egiteko epea iraganik, eragiketa hori burutu ez bada, sujetu pasiboak idatziz eskatu ahal izanen du berandutza korrituak ordain diezazkieten, Nafarroako Toki Ogasunari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 24. artikuluan xedatutakoa moduan.

4. Artikulu honek aipatu bezala, Administrazioak ofizios egin beharreko itzulketarako prozedura, baldintzak eta ordaintzeko modua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Hogeita hamar. 107. artikulua.

"107. artikulua. Zerga egozketa edo gardentasun erregimenean dauden Sozietateen obligazioak.

1. Foru Lege honen 11. artikulua aipatzen dituen entitateek bazkide edo partaideetako bakoitzari igorri beharko dizkiote Zergaren aitorten aldia hasi aurretik, erregelamendu bidez zehaztuko diren datuen egiaztagiria.

Zergaren sujetu pasiboek, zergaren aitortenari zenbaki honek aipatzen duen egiaztagiria erantsi beharko diote.

2. Foru Lege honen V. Tituluaren I. Kapituluko 5. Sekzioak aipatzen dituen sozietateek, Sozietateen gaineko Zergaren aitortenarekin batera, beren bazkideen zerranda aurkeztu beharko dute, erregelamendu bidez zehaztuko diren datuekin.

Zerranda Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onetsitako ereduaren arabera aurkeztuko da.

Hogeita hamaika. Seigarren Xedapen Iragankorren 1. zenbakiaren idazketa berria.

1. Foru Lege honen 41. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 1979.eko urtarrilaren 1ean baino lehenago erositako ondare-elementuen eskualdaketarekin edota data horren aurretik erositako baloreetatik heldu diren harpidetze-eskubideen eskualdaketarekin agertuko diren ondare

gehikuntza edo urripenetan, sujetu pasiboak eroste-balioztat 1978ko abenduaren 31ko dataz merkatuan zegoena hartu ahal izanen du, beti ere, merkatukoa eroste-balioa baino handiagoa bada. Kasu horretan, eroste-datatzat 1979.eko urtarrilaren 1a hartuko da."

Hogeita hamabi. Hamalagarren Xedapen Iragankorra gehitzea.

"Hamalagarrena. 1997ko urtarrilaren 1 baino lehen erositako ondare osagaietatik heldu diren ondare gehikuntza eta urripenen zenbatekoa zehaztea.

1997ko urtarrilaren 1 baino lehen erositako ondare osagaietatik heldu diren ondare gehikuntza eta urripenen zenbatekoa modu honetan zehaztuko da:

1. 1997ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarte eskualdatutako ondare osagaiak.

Osagai bakoitzerako eta Foru Lege honen V. Tituluaren I. Kapituluko 4. Sekzioan dauden eta 1996ko abenduaren 31 indarra zuten arauen arabera, ondare gehikuntza edo urripena honako espezialitate hauetan zehaztuko da:

a) Sujetu pasiboaren ondarean egondako denbora izanen da osagaia erosi zen egunetik 1996ko abenduaren 31 arte iraganiko urteak, goitik biribildua. Halere, 1996ko abenduaren 31n kontatuta, denbora bi urtetik beherakoa bada, denbora aldi hori zehaztuko da erosi eta eskualdatu zen egunetan oinarrituta.

b) Foru Lege honen 40. artikulua 2. zenbakiko b), c) eta d) letretan aurreikusitako portzentaiak izanen dira 100eko 14,28, 100 25 eta 100 11,11, hurrenez hurren.

c) Ondare gehikuntzak ez dira zergaren menpean egonen sujetu pasiboaren ondarean letra horiek aipatutako ondasun edo eskubideek emandako denbora zortzi, bost eta hamar urtetik gorakoa denean, hurrenez hurren.

d) Ondare urripen ez-erregularrez ez dute murrizketarik izanen.

2. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera eskualdatutako ondare osagaiak.

1. Osagai bakoitzerako eta Foru Lege honen V. Tituluaren I. Kapituluko 4. Sekzioan ezarritakoaren arabera zehaztuko da ondare gehikuntza edo urripena:

2. Ondare gehikuntza ez-erregularren kasuan, zenbatekoa honela murriztuko da:

a) Sujetu pasiboaren ondarean emandako denbora izanen da osagaia erosi zen egunetik 1996ko abenduaren 31 arte iraganiko urteak, goitik biribildua.

Harpidetza eskubideen kasuan, egondako denbora izanen da zein baliotatik heldu diren, horiei dagokiena.

Eskualdatutako ondare osagaietan inbertsioak edo hobekuntzak egin baldin badira, hauek sujetu pasiboaren ondarean emandako denbora izanen da horiek egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31 arte iraganiko urteak, goitik biribildua.

b) Baloreen Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean aurreikusitako bigarren mailako baloreen merkatu ofizialetako batean negoziazioan onartutako akzioak direnean, Higi-garrien edo Higiezinaren Inbertsiorako Sozietateen kapital soziala ordezkatzan duten akzioak salbu, ondare gehikuntza edo urripena 100eko 25 murriztuko da urte bakoitzeko, egondako denbora bi urtetik gorakoa denean.

c) Arestiko b) letran xedatutakoa kendu gabe, ondasun higiezinak, horien gaineko eskubideak edo otsailaren 26ko 1/1990 Foru Legearen 59. artikulua biltzen dituen entitateen baloreak direnean, Higiezinaren Inbertsiorako Sozietate edo Fondoen kapital soziala edo ondarea ordezkatzan duten akzioak salbu, ondare gehikuntza edo urripena 100eko 11,11 murriztuko da urte bakoitzeko, egondako denbora bi urtetik gorakoa denean.

d) Gainerako gehikuntzak 100eko 14,28 murriztuko dira urte bakoitzeko, egondako denbora bi urtetik gorakoa denean.

e) 1996ko abenduaren 31n, arestiko b), c) eta d) letretan adierazitakoaren arabera, ondarean bost, hamar eta zortzi urtetik gora, hurrenez hurren, egon diren ondare osagaietatik heldu diren ondare gehikuntzak ez dira zergaren menpean egonen.

3. Ondare urripen ez-erregularrek ez dute murrizketarik izanen.

4. Eskualdatutako ondare osagaietan inbertsioak edo hobekuntzak egin baldin badira, hura osatzen duten osagarri bakoitzari dagokion besterente balioaren zatia bereiziko da, arestiko 2 eta 3. idaztatietan xedatutakoa aplikatzearen ondorioetarako."

**2. artikulua.** Ondorioak 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera izateko, Pertsona Fiskoaren Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen artikulua, ondotik ematen direnak, modu honetan idatzirik geldituko dira:

Bat. 25. artikulua. Bat.

"Bat: Landa eta hiri ondasun higiezinaren titular-tasunetik edo horien gaineko eskubide erreale-  
netik ateratako etekin osotzat ondokoak hartuko dira:

a) Ondasun higiezinaren erabilpena lagatu, errentan edo berrerrentan emandakoak direnean:

1. Lagapen-hartzaile, errentari edo bererrentari-  
riengandik jasotako zenbatekoa, kasuan kasu,  
ondasun higiezinarekin batra lagatutako ondasun  
guztietan dagokiena barne. Balio Erantsiaren gaine-  
ko zerga ez da kontuan hartuko.

2. Jabeak edo gozamen-dunak jasotako berrentamendu edo intsul-daketaren prezioan duen partaidetzaren zenbatekoa.

3. Eskubide errealearen jabeak edo titularrak probetxamendurik beretzat gelditzen badu, horri dagozkion zenbatekoak ere sarreratzat konputatu-  
ko dira. Probetxamendu hori ez da berez enpresa  
jarduera izanen; hala bada, enpresa horren sarre-  
ratzat hartuko da.

b) Gainontzeko hiri ondasun higiezinak, salbu eta ohiko etxebizitza eta eraiki gabeko lurzorua: Hiirlur Kontribuzioaren edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako aipatu ondasun higiezinak duen katastro-balioari ehuneko 1,30 aplikatu ondoren ateratako zenbatekoa. Ondasun higiezinak katastro-baliorik ez badu, aurreko por-tzentaia erosi denean ordaindutakoari aplikatuko zaio."

Bi. 26. artikulua.

"26. artikulua. Gastu kengarriak.

Aurreko artikulua aipatzen dituen ondare ondasun eta eskubideen etekin garbia zehaztu ahal izateko, gastu kengarriak hauexek izanen dira:

A) Bat ataleko a) letrako ondasun eta eskubi-deak:

1. Horiek erdiesteko egindako gastuak eta aipatu ondasun edo eskubideak erosi edo hobetzen inbertitutako besteren kapitalen korrituak eta horiek finantzatzeko izandako gastuak ez dira ondasun higiezina edo eskubidea lagatzeagatik lortu etekin osoak baino handiagoak izanen.

2. Etekinak sortu dituzten ondasunak erabiltze-  
agatik edo denboraren poderioz jasandako gale-  
raren zenbatekoa, arauen bidez zehaztuko diren  
baldintzetan.

B) Bat ataleko b) letrako ondasun eta eskubi-deak: Hirilur kontribuzio edo Ondasun Higiezinaren



gaineneko Zergagatik ordaindutako kuota eta erre-karguak, premiamendukoa izan ezik.

#### Hiru. 37. artikulua

“37. artikulua. Etekin garbia zenbatespen zuzenean zehazteko arauak. Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia zenbatespen zuzenean zehaztu ahal izateko, Sozietateen gaineko Zergaren arauak aplikatuko dira, eta ondorengo xedapen bereziak kontuan hartuko dira: 1.a. Ez dira gastu kengarrizat hartuko Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 24.2 artikulua aipatzen dituen kontzeptuak, ezta gizarte aurreikuspeneko mutualitateei enpresariak edo profesionalak berak emandakoak, Foru Lege honetako 67. artikuluan ezarritakoa galarazi gabe. Nolanahi dela ere gastu kengarrizat hartuko dira funtzionarioek egindako kotizazioak nahitaezko Mutualitateei, Foru Lege honetako 18. artikuluan aipatutakoak ez direnei, eta Zurtzen Erakunde edo antzeko Erakundeei egindakoak. 2.a. Erregelamendu bidez arau bereziak ezartzen ahalko dira zenbait gastu kengarriren zenbatekoa zehazteko, zenbatespen zuzen eraztuan dauden enpresari eta profesionalen kasuan, barne harturik justifikatzen zail direnak.”

#### Lau. 64. artikulua.

64. artikulua. Zerga-oinarria zehazteko erregimenak. Zerga-oinarriaren osagai desberdinen zenbatekoa, honako bide hauetakoren bat erabiliz zehaztuko da: a) Zuzeneko zenbatespena, erregimen orokor gisa aplikatuko dena, eta bi motatakoa izaten ahal dena:

– Arrunta

– Erraztua, enpresa eta lanbide jarduera jakin batzuetarako, alegia, negozioen zenbateko garbia, sujetu pasiboak egindako jarduera guztiak harturik, aurreko urtean ehun milioitik gorakoa ez den haietarako, non eta ez dion uko egiten aplikatzeari erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan. b) Enpresa eta lanbide jardueren zenbait etekinetarako zenbatespen objektiboa, Foru Lege honetan eta bera garatzen duten arauetan ezarritako dagoen moduan. Erregimen honen arau erregulatzaileretan ezarritako baldintzak betetzen dituzten sujetu pasiboek, erregimen honen arabera zehaztuko dituzte beren etekinak, non eta ez dioten uko egiten aplikatzeari, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.

c) Zeharkako zenbatespena. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga zeharka zenbatespena, kontuan hartuko dira, nagusiki, zenbatespen objektiborako ezarritako dauden zeinu, indize, modulu edo koefizienteak, baldin eta zerga-oinarria zehazteko zenbatespen objektiboko erregimenari uko egin dioten sujetu pasiboak badira. 65. artikulua. Zenbatespen objektiboa. 1. Zenbatespen objektiboko erregimena modalitate bat baino gehiagoren bidez burutzen ahal da, eta erregelamenduaren bidez zehazten diren enpresa txiki nahiz ertainen edota profesionalen etekinak zehaztuko ditu, honako irizpide hauei jarraikiz: a) Zenbatespen objektiboaren metodoa Balio Erantsiaren gaineko Zergan ezarritako erregimen bereziki batera aplikatuko da, baldin eta erregelamenduaren bidez horrela zehazten bada. b) Zenbatespen objektiboko erregimenaren aplikazio esparrua, jarduera eta laboreen izaeraren arabera finkatuko da, edo modulu objektiboak kontuan harturik, hala nola eragiketen bolumena, langile kopurua, erosketen zenbatekoa, ustiategiaren azalera edota erabilitako aktibo finkoak, besteak beste. c) Honela kalkulaturiko etekinetan, ulertuko da barne hartzen direla enpresa edo lanbide jarduerari loturiko elementuen kostubidezko eskualdaketatik ondorioztatzen diren ondare-gehikuntza garbiak, baldin eta gehikuntza horien urteko zenbatekoa 500.000 pezetatik goitikoa ez bada. d) Enpresa edo lanbide jardueren etekin garbia zenbatespen objektiboaren bidez kalkulatzeko, zeinu, indize, modulu edo koefiziente orokorrak erabiliko dira, edo zenbait jarduera-sektoreri dagozkiela, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak finkatuko dituenak, kontuan hartuz jardueraren garapenerako beharrezkoak izanik egiten diren inbertsioak.

e) Zenbatespen objektiboko erregimenean dauden sujetu pasiboan betebeharrak fiskalak, erregimenaren ezaugarriari egokituko zaizkie. 2. Erregelamendu bidez arautzen ahal da, zenbait jarduera edo sektorerentzat, zenbatespen objektiboko sistemen aplikazioa. Sistema horien ondorioz ezarriko dira, sujetu pasiboan onarpenaren ondotik, zenbait zergalditarako etekin garbien zenbatekoak, banakakoak. 3. Etekinen zenbatespen objektiboko erregimena, zenbait lurralde barruti zehaztutan aplikatzen ahal da. 4. Zenbatespen objektiboko erregimenaren aplikazioak ez du inola ere ondare gehikuntzen karga ekarriko, baldin eta jardueraren etekin errealean eta erregimen hauen aplikazio zuzenetik ateratzen diren arteko diferentziengatik horrelako gehikuntzarik gertatzen bada, artikuluan honen 1. zenbakiko c) letran ezarritakoa deusetan galarazi gabe. 5. Zenbatespen objektiboko erregimena aplikatzen ahal zaie errentak esleitzeko erregimeneko entitateei, erregelamendu bidez ezartzen diren baldintza eta betebeharrekin.”

Sei. 70. artikulua, 1 zenbakia. 1. Likidazio-oinarri erregularra ondoko eskalan zehazten diren tasen arabera kargatuko da:

| Lik. oinarria,<br>pta. kopuru<br>honetaraino | Kuota<br>osoa<br>(pezetak) | Gainerako lik. oin.<br>pta. kopuru<br>honetaraino | Tasa<br>aplikagarria<br>(portzentaia) |
|--|----------------------------|---|---------------------------------------|
| 542.000                                      | 0                          | 542.000   | 20                                    |
| 1.084.000                                    | 108.400                    | 542.000   | 22                                    |
| 1.626.000                                    | 227.640                    | 542.000   | 24                                    |
| 2.168.000                                    | 357.720                    | 542.000   | 26                                    |
| 2.710.000                                    | 498.640                    | 650.000   | 28                                    |
| 3.360.000                                    | 680.640                    | 650.000   | 30                                    |
| 4.010.000                                    | 875.640                    | 650.000   | 32                                    |
| 4.660.000                                    | 1.083.640                  | 650.000   | 34                                    |
| 5.310.000                                    | 1.304.640                  | 650.000   | 36                                    |
| 5.960.000                                    | 1.538.640                  | 650.000   | 38                                    |
| 6.610.000                                    | 1.785.640                  | 650.000   | 40                                    |
| 7.260.000                                    | 2.045.640                  | 650.000   | 42                                    |
| 7.910.000                                    | 2.318.640                  | 650.000   | 44                                    |
| 8.560.000                                    | 2.604.640                  | 650.000   | 46                                    |
| 9.210.000                                    | 2.903.640                  | 650.000   | 48                                    |
| 9.860.000                                    | 3.215.640                  | 650.000   | 51                                    |
| 10.510.000                                   | 3.547.140                  | hortik aitzina                                    | 53"                                   |

Zazpi. 74. artikulua. 1. a), lehenbiziko lerroaldea

"Sujetu pasiboarekin bizi den ezkongai bakoi-tzeko ondoko zenbatekoak kenduko dira:-Lehen-bizikoagatik: 28.000 pezeta.

– Bigarrenagatik: 36.000 pezeta.-Hirugarrena-gatik: 50.000 pezeta.

– Laugarrenagatik: 56.000 pezeta.-Bosgarren eta hurrengoagatik: 69.000 pezeta."Zortzi. 74. artikulua. 5. b)

"b) 100eko 15a, sujetu pasiboaren ohizko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzeagatik ekitaldian ordaindutako diru kopuruena.Horretarako, zaharberritzeak, bizileku eta hiri ondarearen zaharberritzearen babespenari dagokionez legez eska daitezkeen baldintzak bete beharko ditu.Ohizko egoitza, hiru urtez jarraian sujetu pasiboa bizi deneko etxebizitza izanen da. Hala ere, etxebizitzak izaera hori izan zuela ulertuko da nahiz epe hori ez iragan, etxebizitza aldatzera nahitaez behartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.Kreditu entitateetan, arau bidez ezartzen diren formalizazio eta dispozizio baldintzak betetzen dituzten kontuetan, uzten diren kopuruak izanen dira ohizko egoitza den edo izanen den etxebizitza erosi edo zaharberritzen erabilitzat jotzen direnak.Kenkari honen oinarria etxebizitza erosi edo zaharberritzeko ordaindutako diru kopuruak osatuko dute, eroslearen kargu sortu diren gastuak barne. Erosketa edo zaharberritzea finantzatu bada besteren kapitalarekin, kenkariaren oinarri izanen dira printzipala eta korrituak eta gainerako finantzaketa-gastuak

amortizatzeko erabiltzen diren kopuruak, kenkari honetarako kontagarriak diren kapitalei dagokien zatian.

Ondorio hauetarako, ez dira kontuan hartuko kargatu gabeko ondasun gehikuntzetatik etortzen diren diru kopuruak, ohizko etxebizitza berri bat erosi edo zaharberritzeko berrinbertitzeagatik. Aitzineko lerroaldean xedatutakoa deusetan galarazi gabe, ohizko etxebizitza bat erosten denean lehenago bertze etxebizitza batengatik kenkaria eskuratu bada, kalkuluaren oinarria etxebizitza berriaren erosketa prezioaren eta kenkaria izan zuten diru kopuruen arteko diferentzia izanen da.

Bederatzi. 76. artikulua. Beste zenbaki bat, 3, gehitzea.

"3. Ohizko etxebizitza edo etxebizitzak erosi edo zaharberritzeagatik egiten diren kenkarietara dagozkien oinarrien zenbatekoa guztira, ezin izanen da 10.000.000 pezetatik goitiko izan, sujetu pasiboaren zergaldien multzoa harturik. Gehienera kopuru hori kalkulatzeko ez da kontatuko korrituei eta gainerako finantzaketa gastuei dagozkien kenkariak."

Hamar. 87. artikulua. 1.

"Lehenagoko 76. artikuluko 3. zenbakian aipatzen den zenbatekoa 20.000.000 pezetakoa izanen da famili unitate osoarentzat."

Hamaika. 105. artikulua.

"105. artikulua. Sujetu pasiboaren erazko obligazioak.1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren sujetu pasiboek ondoko hauek gordezko obligazioa dute Zergak indarra duen epean zehar: beren aitopenetan jaso behar dituzten mota guztietako eragiketak, errentak, gastuak, sarrerak, murriztapenak eta kenkariak.2. Foru Lege honen ondorioetarako, enpresa-jarduerak burutzen dituzten sujetu pasiboek, baldin eta zuzeneko zenbatespeneko erregimenean zehazten badira, Merkataritzako Kodeak xedatutakoari lotzen den kontabilitatea izateko obligazioa dute.Dena dela, erregelamendu bidez obligazio hori betetzetik salbuesten ahal dira sujetu pasibo jakin batzuk, eta bereziki Merkataritzako Kodearen arabera merkataritza izaerarik ez duen enpresa-jardueran ari diren haiek.

3. Halaber, Zergaren sujetu pasiboek obligazioa dute arauen bidez ezarriko diren liburu edo erregistroak betetzeko, horretarako Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztuko duen eran."

Hamabi. Xedapen Iragankor bat gehiago, Hamaseigarrena, gehitzea.

1. 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen erosi edo zaharberitutako ohizko etxebizitzetara honako erregimen hau aplikatuko zaie:

a) Foru Lege honetako 74. artikuluko 5. zenbakiko b) letran xedatutakoa, 1997ko abenduaren 31n indarra duen erredakzioaren arabera.

b) Kapital higiezinaren etekinetatik kentzen ahal diren gastuak izanzen dira Lurraldearen gaineko Kontribuziotik edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergatik sortutako kuota eta errekarquak, premiamenduko errekarqua salbu; bai eta haren erosketa edo zaharberitzean inbertitutako besteren kapitalen korrituak eta gainerako finantzaketa-gastuak ere, gehienez ere urteko eta sujetu pasibo bakoitzeko 800.000 pezeta egin bitarte, edo 1.200.000 pezetaraino familia unitatea osorik hartzen bada, baterako zerga-ordainketa egitea aukeratzeko bada.

c) Aurreko bi letra horietan ezarritako kenkarietakoren bat erabiltzen bada, kapital higiezinaren etekin osotzat kontatuko da higiezinak esleitua duen katastro balioaren gainean ehuneko 1,3 aplikatuz ateratzen dena, balio hori Lurralde Kontribuziorako edo Ondasun Higiezinaren Zergarako harturik, edo, horrelakorik ez badago, erosketa balioaren gainean. Kenkari horietakoren bat erabiltzen ez bada, ez da kontatuko kapital higiezinaren etekin osoa.

2. 1998ko urtarrilaren 1aren ondotik erosi edo zaharberitutako ohizko etxebizitzetara aplikatuko zaie Foru Lege honetan ezarritako erregimena. Dena dela, ez dira kontatuko, 76. artikuluko 3. zenbakian ezarritako gehienekoa kalkulatzeko, aipatu data baino lehen erosi edo zaharberitutako etxebizitzetara dagozkielarik egindako kenkarien oinarriak.

3. Aurreko bi zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako kontsideratuko da:

a) Etxebizitza erosi dela 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen, baldin eta data horren aurreko urteetan eskubiderik eman badu 1. zenbakiko a) eta b) letratan aipatzen diren kenkarietakoren bat erabiltzeko, alde batera utzirik etxebizitza-kontuan sartutako dirukopuruei dagozkien kenkariak, dirukopuru horiek aipatu data hori baino lehen, osorik edo hein batean, aplikatu ez badira.

b) Etxebizitza zaharberitu dela 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen, zaharberitze babestuaren behin-behineko kalifikazioari edo entitate eskudunak emandako kasuan kasuko ziurtagiriari dagozkion kontzesioa aipatu egunaren aurretik izan bada.”

**3. artikulua.** 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, Zenbait zergaren hein bateko aldaketari eta beste zerga neurri batzuei buruzko abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeko 7. artikuluko 1. zenbakiko a) letrari beste idazkera bat eman zaio, hurrengo edukiarekin:

“a) Beraiek bakarrik, edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legeko 28. artikuluko xedatuaren arabera lotetsitako entitateekin batean, edo zerga emateko betebeharrak pertsonala duten pertsona fisikoekin batean, linea zuzen edo alboko, odolaldeko edo ezkontzahaidetasuneko bigarren gradua arte, hori barne, ahaidetasunagatik loturikoa, Espainiako lurraldean egoitza ez duen entitatearen kapitalaren, fondo propioen, emaitzen edo boto eskubideen 100eko 50eko edo hortik gorako partaidetza izatea, haren ekitaldi soziala ixten den egunean.

Lotetsitako entitate ez egoiliarrek duten partaidetza, Espainiako lurraldean egoitza duten pertsonetan edo entitate lotetsietan determinatzen duen zeharkako partaidetzaren kopuruan zenbatuko da.

Sartu beharreko errenta positiboaren zenbatekoa emaitzetako partaidetzaren proportzioan ezarriko da eta, halakorik ezean, kapital, fondo propio edo boto eskubideetako partaidetzaren proportzioan.”

**4. artikulua.** 1997ko urtarrilaren 1etik aitzineko ondorioekin, bestela idatzita geratuko da Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legeko 33. artikulua. Horra edukia:

“33. artikulua. Kuotaren kenkariak.

1. Hurrengo ondasun eta eskubideen dagokien zati proportzionala kenduko zaio Zergaren kuotari:

a) Subjektu pasiboaren ondasun eta eskubideak eta senar-emazteenak direnak, enpresa-jarduera betetzeko beharrezkoak direnak, beti ere jarduera hori subjektu pasiboak berak azturaz eta zuzenean burutzen badu eta aipatu jarduera burutzen duenaren errenta-iturri nagusia bada.

Errenta-iturri nagusia kalkulatzeko, ez dira kontuan hartuko zenbaki honetako b) letrak aipatzen dituen entitateetan burutzen diren zuzendari-tza-eginkizunen ordainketak, ezta aipatu entitateetan partehartzeatik eratorritako beste edozein ordainketa ere.

b) Merkatu antolatuetan kotizatzen duten edo ez duten entitateekiko partehartzeak, hurrengo baldintzak betetzen direnean:

Lehena. Entitateak enpresa-jardueraren bat benetan burutzea eta ez dezala izan jarduera

nagusizat ondare higigagarri edo higiezinen baten kudeaketa. Entitateak ondare higigagarri edo higiezina kudeatzen ez duela ulertuko da, eta ondorioz, enpresa-jarduera burutzen duela, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 95. artikulua aplikatuz, aipatu entitateak baldintzarik betetzen ez duenean haren aktiboaren erdia baino gehiago baloreek osatzen dutela edo ondasunen edukitza hutsezkoa dela josteko.

**Bigarrena.** Entitateak sozietate-forma duenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 95. artikulua ezarritako kasurik ez gertatzea.

**Hirugarrena.** Subjektu pasiboak entitatearen kapitalean duen partaidetza 100eko 15 izatea, gutxienez, banaka zenbatua, edo 100eko 20a, ezkontideak edo bigarren graduako aurreko, ondorengo edo albo-ahaideek dutenarekin batera zenbatuz gero, ahaidetasuna odolkidetasunetik, ezkontzahaidetasunetik edo seme-alabaordetzatik datorrela.

**Laugarrena.** Subjektu pasiboak entitateko zuzendaritza-eginkizunak benetan betetzea, eta horren ondorioz, enpresa-, lanbide- edo norbere lanaren etekin guztien 100eko 50etik gorako ordainketa jasotzea.

Entitatean duen partaidetza aurreko hirugarren xedapenak aipatzen dituen pertsona batekin edo batzuekin baterakoa bada, ahaidetasun-taldeko pertsona batek gutxienez bete beharko ditu zuzendaritza-zereginak eta haren ondoriozko ordainketak, pertsona horiek guztiak kenkarirako eskubidea izatearen kaltetan gabe.

Kenkariak partaidetzen balioa baino ez du hartuko -balio hori Foru Lege honetako 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauarekin bat finkatuko da-, enpresa-jarduera burutzeko behar diren aktiboekin, enpresa-jarduera horretatik heldu diren zorren kopurua, eta entitatearen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian.

2. Zerga-oinarria zehazteko, izaera ekonomiko-ondasun eta eskubideen artean, Ceuta, Melilla edo haien dependentzietan egoitza izanik beraien sozietate-xedea hantxe bertan bakarrik garatzen duten entitate juridikoen kapital sozialaren balore adierazleak daudenean, aipatu tituluei proportzioz dagokien kuotaren zatiaren 100eko 50aren hoberia eginen zaie.

3. Erregelamenduz ezarri ahalko dira:

a) Enpresa-jarduera garatzeko behar diren ondasun, eskubide eta zorrei dagokien kenkaria aplikatu ahal izateko betebeharrak.

b) Entitateetako partaidetzek bete behar dituzten baldintzak.”

**5. artikulua.** 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, ondoren aipatzen diren Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko artikulok hurrengo edukiarekin geratuko dira idatzita

Bat. 20. artikulua. 1.

“1. Bigarren mailako merkatu antolatuan kotizatzen ez duten entitateen fondo berekien partaidetzaren ezaugarri diren baloreen baliogaleragatiko dotazioaren ziozko kenkariak ez du gaindituko ekitaldiaren hasierako eta itxierako kontabilitateko balio teorikoen arteko diferentzia, eta kontuan hartuko dira ekitaldi horretan egin diren ekarpenak zein ekarpenen itzulketak.

Irizpide bera aplikatuko zaie merkataritzako legeriari jarraikiz taldeko sozietateen edo sozietate elkartuen kapitaleko partaidetzei, bigarren mailako merkatu antolatuetan kotizaziora onartutako baloreak badira ere.

Zenbaki honetan aipatzen den diferentzia hori zein den zehazteko, sozietate partehartuaren azkeneko bi balantzeak hartuko dira kontutan, zergaldia bukatu aurretik edo bukatzearekin batera itxi badira.”

Bi. 27. artikulua.

“27. artikulua. Moneta baliogalera zuzentzea.

1. Zerga-oinarrian ibilgetu material edo ezmaterialaren ondare elementuen eskualdaketa lortu diren errenta positiboak sartzeko, errenta horien mugaraino haxe kenduko da: arauz ezarriko den moneta baliogaleraren zenbatekoa, honako erregelen arabera kalkulatu:

a) Eskualdatutako ondare elementuen eskuraketa prezioa edo ekoizpen kostua eta zergetatik ken litezkeen amortizazioak biderkatuko dira, horretarako arauz ezartzen den eran eta koefizienteengatik.

b) Aurreko letran ezarritakoa aplikatzeak zehazten dituen kopuruaren arteko diferentziari haxe kenduko zaio: aurreko a) letrak aipatzen dituen koefizienteak erabiltzearen ondorioetarako aintzat hartu den eskualdatutako ondare elementuaren balioa.

c) Eragiketa horretatik eratorritako zenbatekoa hurrengo koefizienteetako batekin biderkatuko da, zergadunak aukeratua: 0,60 koefizientearekin, edo koefiziente zehatz batekin:

a') Zenbatzailean: fondo berekiak.



b) Izendatzailean: pasibo osoa ken kreditu eskubideak eta diruzaintza.

Koefizientea inolaz ere ez da izango bat baino handiagoa eta koefizientea zehazten duten magnitudeak izanen dira, eskualdatutako ondare elementuaren ukantza edo eskualdaketa egunaren aurreko bost ekitaldietan izandakoak eta subjektu pasiboak nahi duena aukeratuko du.

2. Balioak Eguneratzeari buruzko abenduaren 30eko 23/1996 Foru Legearen arabera eguneraturiko ondare-elementuak baldin badira, hurrengo ezarriko zaizkie koefizienteak: erosketaren prezioari eta aipatu ondareari dagozkion zergetatik ken litezkeen amortizazioei. Ez da aintzat hartuko eguneratze-eragiketetatik eratorritako moneta-baliogaltzearen ondoriozko gainbalioaren zenbatekoa.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatzen dituzten kopuruaren arteko aldeari hauxe kenduko zaio: ondare-elementuaren aurreko balioaren kopurua. Emaizta horri hauxe aplikatuko zaio, hala badagokio: aurreko zenbakiko c) letrak aipatzen duen koefizientea.

Aurreko lerroaldian esaten diren eragiketetatik ateratzen den kopuruari hauxe kenduko zaio: abenduaren 30eko 23/1996 Foru Legeak aurreikusitako eguneratze-eragiketen ondoriozko gainbalioa. Horrela ateratako alde edo diferentzia izanen da artikuluko honen aipatzen duen moneta-baliogaltzearen zenbatekoa.

Eguneraturiko ondare-elementuaren aurreko balioa finkatzeko, aurreko zenbakiko a) letrak aipatzen dituen koefizienteak aplikatzeko aintzat hartu diren balioak erabiliko dira.”

Hiru. 42. artikulua. 1.

“1. Inbertsioetarako erreserba bereziaren dotazioaren zenbatekoa gutxienez ere 25 milioikoa izan beharko da ekitaldi ekonomikoan.

Era berean, entitateak zituen baliabide berekiak, alegia, erreserba berezia dotatzeko mozkinak eman zituen ekitaldia ixtean zituenak, gehitu egin beharko dira dotazioa egiten den ekitaldian, erreserba bereziaren kopuru berean, eta kopuru horretan mantendu hurrengo ekitaldietan, 44. artikuluko 4. zenbakia aipatzen duen bost urteko epea bukatu arte, non eta ez den urripenik gertatzen, kontabilitateko galerengatik.

Aurreko lerroaldeak aipatu betebeharraren ondorioetarako, ez dira entitatearen baliabide berekietan sartuko ekitaldi bakoitzaren emaitzak.”

Lau. 50. artikulua. 1.

“1. Karga tasa orokorra likidazio-oinarriari hurrengo eskala ezartzetik aterako da:

a) 0 eta 15.000.000 pezeta bitartean dagoen likidazio-oinarriaren zatiari, 100eko 30a.

b) Likidazio-oinarriaren gainerakoari, 100eko 35a.

Zergaldiak urtebete baino gutxiago irautez bada, ehuneko 30eko karga-tasa ordainduko da hurrengo kopuruarengatik: zergaldiaren egun-kopurua zati 365 egun egitetik ateratako proportzioa 15.000.000 pezetari aplikatzen den kopuruarengatik, edota zergaldiko likidazio-oinarri osoarengatik, kopuru hori urtebeteko mailara igoz gero 15.000.000 pezeta baino gutxiago bada.

Zenbaki honek ezarritakoa gorabehera, ehuneko 35eko karga-tasa ordainduko dute hurrengoek: lurralde amankomunean indarrean diren arauak ezarrita, zerga aitopren bateratuko araubidean ordaintzen duen sozietate-talde bateko kide diren entitateek.”

Bost. 59. artikulua.

“59. artikulua. Barne-ekarpen bikoitza sailheteko kenkaria: dibidenduak eta barne iturriko gainbalioak

1. Subjektu pasiboaren errenten artean Espainian egoitza duten beste entitate batzuen mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak zenbatzen direnean, mozkinetako dibidendu edo partaidetzetatik ateratako zerga-oinarriari dagokion kuota osoari 100eko 50 kenduko zaio.

Mozkinetako dibidendu edo partaidetzetatik ateratako zerga-oinarria horien zenbateko osoa izanen da.

2. Aurreko zenbakiak aipatzen duen kenkaria 100etik 100ekoa izanen da mozkinetako dibidenduak edo partaidetzak, gutxienez, zuzenean edo zeharbidez, 100eko 5eko partaidetza ematen duten entitateetatik etorriak direnean, partaidetza hori banatzen den mozkinak eska daitezkeen egunaren aurreko urtean eduki bada, etengabe.

Kenkaria 100etik 100ekoa izanen da, halaber, aseguru orokorretako mutua, gizarte aurreikuspeneko entitate, elkarrekiko berme-sozietate eta elkarteetatik hartutako mozkinetarako.

3. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatu denean gabeko mozkinetik, kapitalen sartu direnak barne, zerga-oinarriaren integritatearen errenta positiboari dagokion zatiari, eragiketa hauetatik ateratzen denean:

a) Sozietateen likidazioa.



b) Akzioak edo partaidetza berekiak eskuratzeara hura amortizatzen.

c) Bazkideak bereiztea.

d) Likidaziorik gabeko desegintza, hurrengo eragiketetan: bategitea, erabateko zatiketa edo aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorra.

Era berean, entitate eskuratzailerak, artikulua honetan aurreikusitako kenkaria aplikatuko du, zenbaki honen lehen lerroaldean ezarritakoaren arabera, aurreko letretan aipatzen diren eragiketak burutzen dituen sozietateak, 33.1 artikulua dionari jarraikiz, zerga-oinarrian sartu behar duen errentaren gainean.

4. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria ez da eginen honako errentei dagokienez:

a) Kapital murrizketatik edo akzio eta partaidetzen jaulkipen-sariaren banaketatik ateratakoak dagokienez, 33.1 artikuluan xedatutakoaren arabera integratutako errentaren zatiarengatik izan ezik.

Aurreko lerroaldean aipatu eragiketekin batera dibidenduen edo mozkin-partaidetzen banaketa gertatzen denean, horiei ere ezarriko zaie kenkaria, artikulua honetan aurreikusitako arauarekin bat.

b) Banaketa egin aurretik erreserbak egiteko edo galerak konpentsatzeko kapital murrizketa egin denean, edo jaulkipen-saria erreserbetara intsuldatu denean, edo bazkideek ondarea birjartzeko ekarpena egin dutenean, murrizketaren, intsuldatutakoaren edo ekarpenaren zenbatekoraino.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa ez zaie aplikatuko zerga-oinarrian sartu diren banatutako errentei, baldin eta zerga-oinarri negatiboak kendu ez bazaizkie, kendu gabe uzte hori Foru Lege honetako 40. artikuluko 2. zenbakiak ezarritakotik etorri bada salbu.

c) Dibidenduaren edo mozkin-partaidetzaren banaketak errenta zerga-oinarrian sartzea ez dakarrenean, edota aipatu banaketak depreziazioa ekarri dionean partaidetzaren balioari, zerga ondorioetarako. Halakoetan, partaidetzaren balioaren berreskuratzea ez da zerga-oinarrian sartuko.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa ez da aplikatuko:

a') Subjektu pasiboak frogatzen baldin badu partaidetza-balioaren depreziazioaren pareko kopurua Sozietatearen gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartu dela, eta Zerga honetako 50. artikuluen 1. eta 2. zenbakiek aurreikusitako kargatutako bat ezarri zaiola, bata bestearen ondoren

partaidetzaren jabe izan diren entitateek partaidetza eskualdatzearen ondorioz ateratako errenta gisa, eta aipatu errentak dibidenduen gaineko ezarpen bikoitzarengatik kenkarirako eskubiderik izan ez duela. Kenkaria partzialki aplikatuko da letra honek aipatzen duen frogara ere partziala denean.

b') Subjektu pasiboak frogatzen baldin badu partaidetza-balioaren depreziazioaren pareko kopurua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartu dela, bata bestearen ondoren partaidetzaren jabe izan diren entitateek partaidetza eskualdatzearen ondorioz ateratako errenta gisa. Kenkaria partzialki aplikatuko da letra honek aipatzen duen frogara ere partziala denean.

b') letrak aurreikusitako kasuan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren baitan sartu zen kopuruari ezarri zitzaion karga-tasa aplikatuztik aterako da kenkaria, eta aipatu tasak ezin izango du ehuneko 20a gainditu.

d) Hipoteka-merkatuaren Erregulazio-fondo publikoak banatutakoak.

5. Subjektu pasiboaren zerga-oinarrian sartzen diren errenten artean espainiar lurraldean egoitza izan eta karga-tasa orokorraren pean dauden entitateen fondo propioak edo kapitalaren balore adierazgarrien eskualdatetik ateratakoak zenbatzen direnean, hurrengoak kenduko zaio kuota osoari: entitate partaidetuak, eskualdatutako partaidetza izan duen bitartean, sortu dituen onurek, kenkaria izateko eskubidea duten banatu gabeko haiek, kapitalean sartu direnak barne, izan duten gehikuntza garbiari karga-tasa aplikatuztik ateratakoa, eskualdatetik eratorritako errenta positibo mugarekin, beti ere hurrengo baldintzak betetzen direnean:

a) Eskualdaketa egin aurretik partaidetzaren portzentaia, zuzena edo zeharkakoa, 100eko 5 edo gehiagokoa denean.

b) Portzentaia hori etenik gabe eduki izan denean partaidetza eskualdatu den egunaren aurreko urtean zehar.

Partaidetzaren eskualdatze egunaren ondorenez partaidetzaren eskuraketa egunean banatu gabeko onuren zenbatekoa ezin bada zehaztu, baloreak balio teorikoan eskuratutakotzat joko dira.

Kenkari honen aplikazioa 37. artikuluan aurreikusitako berrinbertitzeagatik gerorapenarekin bateraezina izanen da, zenbaki honetan aurreikusitako kenkaria izan duen errentari dagokion zatian.

Zenbaki honek ezarritakoa hurrengoei ere aplikatuko zaie: Foru Lege honetako 50. artikuluko 2. zenbakiko b) letrak aipatzen dituen entitateen kapitalaren balore ordezkatzailen eskualdaketei. Aipatu 2. zenbakiak aurreikusitako karga-tasa ezarriko da ondorio horietarako.

Zenbaki honek aurreikusitako kenkaria ez zaio aplikatuko likidazio-oinarri negatiboen murrizketa dela-eta, partehartutako entitatearen zerga-oinarrian sartu ez diren errentei dagozkien banatu gabeko mozkinen gehikuntza garbiaren zatiari.

6. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak, hurrengo eta jarraiko zazpi urteetan bukatuko diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izanen dira.

Sei. 60 bis artikulua.

“60 bis artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria, establezimendu iraunkoarren bitartez lortutako errentak direnean.

1. Subjektu pasiboaren zerga-oinarrian atzerrian kokaturiko establezimendu iraunkoarren bitartez lortutako errentak sartzen direnean, hurrengo baldintzak betetzen dituzten establezimendu orokor guztien errenta positiboek dagoen kuota osoaren 100eko ehun kenduko zaie:

a) Establezimendu iraunkorrak ateratako errenta Zerga honen antzeko zehaztasunak dituen beste zerga bati lotua eta ez salbuetsirik egotea eta egoitza erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralderen batean ez edukitzea.

b) Establezimendu iraunkorraren errenta, atzerrian burututako enpresa jarduerengatik sortua izatea, Foru Lege honen 148. artikulua 1. zenbakiko c) letran aurreikusi bezala.

c) Establezimendu iraunkorrak bere egoitza nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko Espainiarekin hitzarmena (aplikagarria eta informazioa trukatzeko klausula batekin) sinatu duen herrialde batean izatea, edo bestela egoitza hori erregelamenduz finkatu ahalko den herrialde-zerrenda batean legokeen herrialde batean izatea, beti ere horietan zerga honen antzeko ezaugarriak dituen zerga bat badute.

Gehigarri gisa, balore eskualdatzetik ondorioztaturiko errentari dagokionez, pertsona edo entitate eskuratzailak, lurralde espainiarrean badu egoitza, ez du loturarik izanen entitate eskualdatzailarekin. Bete egin beharko dira b) eta c) letratan adierazitako baldintzak partaidetza edukitzean den ekitaldi guztietan, 2. zenbakian aurreikusitakoa aplikatu ahal izateko.

3. Artikulu honetako 1. zenbakiak aurreikusitako kenketa ez da bateragarria izanen Foru Lege honen 37. artikuluan aurreikusten den berrinbertsioaren ondoriozko salbuespenarekin, errenta berberetz ari garela.

4. Establezimendu orokorrak 1. zenbakian adierazi baldintzak betetzen dituztenean eta, aldi berean, Foru Lege honen 101. artikuluan aurreikusitako errentak lortzen dituztenean, 1 zenbakiak aurreikusi kenketak ez zaizkie errenta horiei aplikatuko.

5. Xedapen hau indarrean jarri ondotik Espainiak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenen bat sinatzen badu herrialderen batekin eta establezimendu iraunkorra han kokatuta baldin badago, aurreko 1. zenbakiak xedatutakoa bakarrik aplikatuko da baldin eta hitzarmen horretan horrela jasotzen bada, espresuki edo Espainiako Legeak agintzen duenera joaz.

6. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak, hurrengo eta jarraiko zazpi urteetan bukatuko diren zergaldietako kuota osoetatik kendu ahal izanen dira.

7. Lehenengo zenbakian aurreikusitako kenkaria bateraezina izango da Kapitulu honek nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko ezarri dituen kenkariekin.”

Zazpi. 61. artikulua.

“61. artikulua. Nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria: dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak

1. Lurralde espainiarrean egoitza ez duen erakunde batek ordaindutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak zerga-oinarrian zenbatzen direnean, dibidenduak ordaintzeko diren mozkinen buruz azken honek benetan ordaindutako zergari dibidendu horiei dagokien munta gutxituko zaio, baldin eta munta hori subjektu pasiboaren zerga-oinarriaren barruan sartzen bada.

Kenkari hau aplikatzeko derrigorrezkoa izanen da egoiliarra ez den entitatearen kapitaleko zuzeneko zein zeharkako partaidetza, gutxienez, 100eko 5ekoa izatea, eta hura, banatuko den mozkin eska daitekeen egunaren aurreko urtean zehar geldiarazi gabe edukia izatea.

Erreserbak banatzerakoan, erreserba horiei abonaturako azken kopuruak aplikatutzat joko dira.

2. Era berean benetan ordaindutako zergatzat joko da dibidendua banatuko duen sozietateak zuzenean parte hartu dueneko entitateek eta haiek, modu berean, parte hartuko duten besteek

ordaindutako zerga, dibidenduak ordaintzeko erabiltzen diren mozkinen egotz lekietan zatian, baldin eta partaidetza hauek 100eko 5etik beherakoak ez badira eta aurreko zenbakiak aipatzen duen beharkizuna betetzen badute, partaidetza edukitzeko denborari dagokionean.

3. Kenkari hau, eta honekin batera dibidenduengatik edo mozkinetako partaidetzengatik nazioarteko ezarpen bikoitzetako ezarritakoa, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da, lurralde espainiarrean lortu izanez gero errenta hauengatik ordaindu behar izanen litzatekeen kuota osoa baino handiagoa izaten ahal.

Muga horren gaindikina ez da zergatik ken litekeen gastutzat joko.

4. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak hurrengo eta jarraiko zazpi urteetan bukatuko diren zergaldietan kendu ahal izanen dira.

5. Artikulu honek aurreikusitako kenkaria ez da erabiliko Foru Lege honetako 59.4.c) artikulua aipatzen dituen kasuetan.”

Zortzi. 62. artikulua.

“62. artikulua. Nazioarteko ezarpen ekonomiko bikoitza saihesteko kenkaria: atzerrian lortutako dibidenduak eta gainbalioak

1. Subjektu pasiboaren errenten artean Espainian egoitza ez duten beste erakunde batzuen dibidenduak edo mozkin-partaidetzak zenbatzen direnean, dibidendu edo mozkin-partaidetzetatik ateratako zerga-oinarriari dagokion kuota osoari 100eko 100 kenduko zaio.

Dibidendu edo mozkin-partaidetzetatik ateratako zerga-oinarria horien zenbateko osoa izanen da.

2. Era berean, subjektu pasiboaren errenten artean espainiar lurraldean egoitza ez duten entitateen fondo propioen edo kapitalaren balore adierazgarrien eskualdaketatik ateratakoak zenbatzen direnean, banatu gabeko mozkinen gehikuntza garbiari karga-tasa aplikatuz ateratakoa kenduko zaio kuota osoari, partaidetutako erakundeak eskualdatutako partaidetza eduki duen artean sortu eta eskualdaketatik eratorritako errenta positiboan mugarekin.

3. Aurreko bi zenbakietan aurreikusitako kenkariak aplikatzeko ondoko baldintzak bete behar dira:

a) Egoitza Espainian ez duen entitateak kapitalean duen partaidetza zuzena edo zeharkakoa 100eko 5ekoa bederen izatea eta partaidetza

hura etenik gabe edukitzea aurreko urtean, banatzen den mozkin eskatu aurretik edo eskualdaketan egin aurretik.

b) Entitate partaidetuak Zerga honen izaera berdina edo antzekoa duen beste zerga bati lotua eta ez salbuetsirik egotea, eta egoitza erregelamendu bidez paradisu fiskaltzat jotako herrialde edo lurralderen batean ez edukitzea.

c) Entitate partaidetuaren errentak, zeinetatik baita ez dibidenduak edo mozkinetako partaidetzak, atzerrian burututako enpresa jarduerengatik sortuak izatea, Foru Lege honen 148. artikuluan 1. zenbakiko c) letran aurrekusi bezala.

d) Entitate partaidetuak bere egoitza nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko Espainiarekin hitzarmena (aplikagarria eta informazioa trukatzeko klausula batekin) sinatu duen herrialde batean izatea, edo bestela egoitza hori araubidez finkatu ahalko den herrialde zerrenda batean legokeen herrialde batean izatea, beti ere horietan zerga honen antzeko ezaugarriak dituen zerga bat badute.

Gehigarri gisa, balore eskualdatzetik ondorioztaturiko errentari dagokionez, pertsona edo entitate eskuratzailerak, lurralde espainiarrean badu egoitza, ez du loturarik izanen entitate eskualdatzailerarekin. Bete egin behar dira b) eta c) letratan adierazitako baldintzak partaidetza edukitzen den ekitaldi guztietan, 2. zenbakian aurreikusitakoa aplikatu ahal izateko.

4. Artikulu honek aurreikusitako kenkaria ez da Foru Lege honetako 59.4.c) artikulua aipatzen dituen kasuetan erabiliko.

5. Bigarren zenbakian aurreikusitako kenketa ez da bateragarria izanen Foru Lege honen 37. artikuluan aurreikusten den berrinbertsioaren ondoriozko gerorapenarekin, aipatu zenbakian adierazi kenkariari baliatu den errentari dagokion zatian.

6. Entitate partaidetuak 3. zenbakian adierazi baldintzak betetzen dituzenean eta, aldi berean, Foru Lege honen 101. artikuluan aurreikusitako errentak lortzen dituzenean, aplikatuko da 101. artikuluan horretan aipatu errenten gainean xedatzen dena, eta entitate partaidetuak lortutako gainerako errentei dagokienez, berriz, artikuluan honetan xedatutakoa aplikatuko da.

Foru Lege honen 101. artikuluan tipifikatutako errentetatik heldu diren dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legeak, zenbait zergaren aldaketa partzialari eta beste tributu neurri buruzko hark, bere 7. artikuluan ezarritakoa aplikatu aurretik izandako ekital-

dietan erdietsiak, 1. zenbakian aurreikusitako kenketa izateko eskubiderik ez dute izanen. Baldin eta entitate partaidetu batean Foru Lege honen 101. artikuluan aurreikusitako zenbait errenta desberdin batera baleude, haiek banatzeko artikulua honetan ezarritakoa aplikatu dakiekeelarik, banaketaren xede lirategiaren errentak finkatzearen, banatutzat joko lirategiaren lehenbizi artikulua hau aplikatzen ahal zaien errentak.

Arau bera aplikatuko da artikulua honen 2. zenbakian aurreikusitako kenketari dagokionez.

7. Entitate partaidetuaren egoitza baldin bada go xedapen hau indarrean jarri ondotik Espainiak nazioarteko ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmen bat sinatzen duen herrialde batean, 1 eta 2. zenbakietan xedatutakoa bakarrik aplikatuko da baldin eta hitzarmen horretan horrela jasotzen bada, espresuki edo Espainiako Legeak agintzen duenera joaz.

8. Kenkari hau ezin izango da 60 eta 61 artikuluek ezarritakoarekin bateratu.

9. Nahikoa kuota osorik egon ez delako kendu ez diren zenbatekoak hurrengo eta jarraiko zazpi urteetan bukatuko diren zergaldietan kendu ahal izanen dira.”

Bederatzi. 71.2 artikuluari beste lerroalde bat gehitzea.

“Aurreko ekitaldiko plantila osoaren batez bestekoa murrizten bada ere, mugagabeko lan-kontratua duen plantilaren batez bestekoa gehitzen bada, aurreko lerroaldian esaten den kenkaria ezarriko zaio aipatu gehikuntzaren eta plantila osoaren batez bestekoaren arteko alde positiboari, halakorik bada.”

Hamar. 72.2. artikulua

“2. 63.etik 70.era arteko artikuluek aipatzen dituzten kenkariaren oinarria kalkulatzeko, 42.3 artikulua xedatutakoa ezarriko da.

Subentzia ematen bada kenkaria aplikatzeko garaiaren ondoko zergaldian, subjektu pasiboak egin behar duen aitortzearen kenkariaren oinarria egin gutxipenaren ondorioz soberan kendutako kuotaren zenbatekoa sartuko du.”

Hamaika. 74. artikulua.

“74. artikulua. Atxikipenak, konturako sarrerak eta zatikako ordainketak kentzea.

Hobarien eta kenkariaren zenbatekoan kuota osoa gutxiagotzetik ateratzen den kuotari honako konturako ordainketa hauek kendu ahal izanen zaizkio:

a) Benetan egindako konturako atxikipenak.

b) Konturako sarrerak.

c) Zatikako ordainketak.

d) Foru Lege honen X. Tituluaren II. Kapituluaren erregulatutako zerga gardentasunaren menpeko sozietateek ordaindutako kuota.

Kontzeptu hauek hobarien eta kenkariaren zenbatekoan zergaren kuota osoa gutxiagotzetik ateratzen den zenbatekoa gainditzen dutenean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ofizioz itzuliko du gaindikina.”

Hamabi. 109. artikulua. 4.

“4. Salbuesteko harturiko erabakiak aldi baterako batasuna iraungi arte aplikatzera behartuko du. Aldi baterako batasunak lorturiko errenta negatiboa kideen zerga oinarrian sartuko da. Halakorik gertatuz gero, hurrengo ekitaldietan aldi baterako batasunak errenta positiboak ateratzen dituztenean, kide diren entitateek beraien zerga oinarrian sartuko dute, izaera positiboarekin, aurretik egotzitako errenta negatiboa, aipatu errenta positiboaren mugarekin.”

Hamahiru. 148. artikulua. 3.

“3. Mozkinak banatzetik heldu den partaidetzaren depreziazioa ez da dibidenduak edo mozkinpartaidetzak hartzen dituen entitatearen zerga oinarrian sartuko, aipatu depreziazioa agertzen den modua eta zergaldia edozein direla ere, salbu eta, partaidetzaren aurreko eskualdaketa baten ondorioz, aipatu mozkinaren kopuruari dagokion zerga Espainian ordaindu denean.”

Hamalau. 149. artikulua.

“149. artikulua. Mozkinaren banaketa.

Zerga-oinarria sarturik ez dauden errenten ondorioz banatzen diren mozkinekin honela jokatuko da:

a) Hartzailea zerga honi loturik dagoen entitatea denean, jasotzen diren mozkinak ez dute dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emango, baina entitate hartzaileak, jaso diren mozkin horiek sortzen lagundu duten errentei dagozkien atzerrian ordainduriko zergei buruz, 60., 61. eta 62. artikuluek aurreikusten duten nazioarteko ezarpen bikoitzagatik kenkaria aplikatzen ahaliko du.

b) Mozkinaren hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari loturiko pertsona denean, banatzen den mozkinak ez du dibidenduen ezarpen bikoitzagatik kenkarirako eskubidea emango, baina aipatu pertsona fisikoak, jaso

diren mozkin horiek sortzen lagundu duten erren-tei dagozkien atzerrian ordainduriko zergei buruz, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 78 artikulua aurreikusten duen nazioarteko ezarpen bikotzagatiko ken-karia aplikatzen ahalko du.

Artikulu honetan aurreikusten denaren ondorioetarako, banatzen diren lehen mozkinak zerga-oinarrian sarturiko errentetatik datozela ulertuko da.

Mozkina banatzen duen entitateak aipatu beharko du oroit-idazkian zerga-oinarrian sartu ez diren errenten zenbatekoa, eta berauei dagozkien eta atzerrian ordaindu diren zergak, baita bere bazkideei aurreko letretan aurreikusten dena bete ahal izateko nahikoa informazio eman ere."

Hamabost. Lehen Xedapen Gehigarriaren 1. zenbakiko a) letra bestela idatzita.

"a) Azaroaren 15eko 12/1993 Foru Legeko 19. artikuluan; Funtzio Publikoaren Araubide Juridikoaren eta Langabezi Babesaren Eraldaketarako Zerga Neurriak onetsi zituen abenduaren 29ko 22/1993 Legeko 2. artikuluan; ekainaren 24ko Bizkaiko 5/1993 Foru Arauan; ekainaren 26ko Gipuzkoako 11/1993 Foru Arauan; eta uztailaren 5eko Arabako 18/1993 Foru Arauan ezarritakoaren arabera hobarrituta edo salbuetsita dauden errendimenduei dagozkien mozkinak. Orobat, Bizkaiko 3/1996 Foru Arauan, Gipuzkoako 7/1996 Foru Arauan eta Arabako 24/1996 Foru Arauan ezarritako murrizketak ezar daitezkeen lehenengo bi zergaldiei dagozkien mozkinetatik datozen dibidenduei.

Ondorio horietarako, erreserben banaketa egonez gero, erreserba horiei ordaindutako lehenengo kopuruak joko dira ezarritzat."

Hamasei. Laugarren Xedapen Gehigarriari 3. zenbakia gehitzea

"Era berean, 1. zenbakian aipaturiko zergen zerga oinarritik kanpo geratuko dira oihan-finkak ustiatzen dituztenei emandako kapital-dirulaguntzak, finka horiek baso-administrazio eskudunak onetsitako oihan-kudeaketa planen, mendien antolamendurako planen, plan desokratikoen edo birbasotze planen arabera kudeatzen badituzte, batezbesteko ekoizpenaldia 30 urte edo gehiago bada, beti ere."

**6. artikulua.** 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina hasten diren zergaldietarako ondorioekin, ondoren aipatzen diren Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko artikuluo hurrengo edukiarekin geratuko dira idatzita:

Bat. Beste lerroalde bat gehituko zaio 31. artikuluko 2. zenbakari.

"Era berean, aurreko lerroaldean ezarritakoa establezimendu iraunkor bati atxikitako ondare-elementuei ere aplikatuko zaie, establezimendu horrek Espainiako lurraldeko jarduerari uzten diotenean edota atzerrira transferitzen dutenean."

Bi. Hogeita laugarren Xedapen Iragankorra gehitzea.

"Hogeita laugarrena. Ziklo merkantila ixten ez duten establezimendu iraunkorrak.

161. artikuluko 4. zenbakiko b) letrak aipatzen duen portzentaia finkatu bitartean, 100eko 15a aplikatuko da."

Hiru. X. Tituluari XIV. Kapituluak gehitzea.

XIV. Kapituluak  
Establezimendu iraunkorren  
tributazio-araubidea

158. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru Komunitateari dagokio establezimendu iraunkorren bitartez lortutako edozein motako errendimenduen zerga ordainaraztea, Hitzarmen Ekonomikoaren 16. eta 17. artikuluen arabera.

159. artikulua. Establezimendu iraunkorrei egotz dakizkiekeen errentak.

1. Hurrengo kontzeptuek osatuko dute establezimendu iraunkorriari egotz dakiokeen errenta:

a) Aipatu establezimendu iraunkorrak garatzen dituen ustiapen ekonomikoen errendimenduek.

b) Hari atxikitako ondare-elementuen lagapenetik eratorritako errendimenduek.

c) Establezimendu iraunkorriari atxikitako ondare-elementuetatik heldu diren ondare-gehikutza eta murrizketak.

Establezimendu iraunkorriari atxikitako ondare-elementutzat joko dira, haren xede den jarduera burutzeari funtzionalki lotzen zaizkionak.

2. Egoiliar ez den entitateak berak aurretik inportaturiko ondasunak berriro esportatzen ditueanean, ulertuko da:

a) Ez dela inongo ondare-aldaketarik gertatu, erabilera-aldian egindako ordainketek ezar dakiekeen tratamenduaren kaltetan gabe, aldi baterako inportatu diren ibilgetu-elementuak direnean.

b) Ondare-aldaketa egon dela, establezimendu iraunkorrak garatzen dituen jardueretan erabiltzeko eskuratu diren ibilgetu-elementuak direnean.



c) Ustiapen ekonomiko baten errendimendua izan dela, positiboa zein negatiboa, izakintzat jotako elementuak direnean.

160. artikulua. Establezimendu iraunkor ezberdinak.

1. Egoiliar ez den entitate batek jarduera-zentro bat baino gehiago baldin badu, establezimendu iraunkor ezberdintzat joko dira eta, ondorioz, bereiz zergapetuko dira, hurrengoak gertatzen direnean:

a) Argi eta garbi bereiz daitezkeen jarduerak burutzea.

b) Haien kudeaketa bereiz egitea.

2. Inolaz ere ezingo dira establezimendu iraunkor ezberdinen errentak konpentsatu.

161. artikulua. Zerga-oinarria finkatzea.

1. Establezimendu iraunkorraren zerga-oinarria araubide orokorraren xedapenen arabera finkatuko da, hurrengo letretan ezarritakoaren kaltean gabe:

a) Zerga-oinarria finkatzeko, zergetan kendu ezin diren gastutzat joko dira establezimendu iraunkorrak etxe nagusiari edo haren establezimendu iraunkorretako bati egiten dizkion ordainketak, kanon, korritu, edo komisio gisa, laguntza teknikoaren ordainetan edo bestelako ondasun eta eskubideak erabiltzeagatik.

Arestian xedatutakoa gorabehera, zergatik kendu ahalko dira atzerriko bankuetako establezimendu iraunkorrek, euren jarduera burutzeko, euren etxe nagusiari edo haren establezimendu iraunkorrei abonaturiko interesak.

b) Zerga-oinarria finkatzeko, zuzendaritza gastuetarik eta administrazio gastu orokorretarik establezimendu iraunkorrari dagokion arrazoizko zatia kentzen ahalko da, hurrengo baldintzak betetzen badira:

a) Kontabilitate-egoeretan islatzea.

b) Banatzeko kopuru, irizpide eta moduluak erasota uztea, aitopenarekin batera aurkezturiko oroit-idazki informatiboaren bitartez.

c) Erabilitako inputazio-irizpideak arrazoizkoak eta jarraikoak izatea.

Inputazio-irizpideak arrazoizkoak direla ulertuko da, establezimendu iraunkorrak egindako faktore-erabileran eta aipatu faktoreen guztizko kostuan oinarritzen direnean.

Aurreko lerroaldean esandako irizpidea erabiltzerik ez badago, hurrengo magnitudeetako bate-

kin duen harremanaren arabera egin ahal izango da inputazioa:

a) Negozio-zifra.

b) Zuzeneko kostu eta gastuak.

c) Ustiapen ekonomikoei atxikitako ibilgetu materialaren elementuetan egindako batez besteko inbertsioa.

d) Ustiapen ekonomikoei atxikitako elementuetan egindako batez besteko inbertsio guztizkoa.

c) Zuzen edo zeharka establezimendu iraunkorri atxikitako kapital berekien kostuari dagozkion kopuruak ez dira egozkarri izango, inolaz ere.

2. Establezimendu iraunkorrak egoiliar ez den entitatearen etxe nagusiarekin edo haren establezimendu iraunkor bestelakoekin, Espainiako lurraldean zein atzerrian izan, edo harekin lotura duten beste sozietateekin egindako eragiketak, Foru Lege honetako 28. artikuluaaren xedapenen arabera baloratuko dira.

3. Establezimendu iraunkorren likidazio-oinarri positiboak edo likidazio-oinarri negatiboak kendu ahalko zaizkie, Foru Lege honetako 40. artikulua ezarritakoarekin bat.

4. Establezimendu iraunkor batek egindako eragiketek dirusarrerak finkatzeko merkataritza-ziklo osoa ixten ez dutenean, beraz, zikloa entitate ez egoliarrek edo haren establezimendu iraunkor batek edo batzuek bukatzen dutenean, inongo kontraprestaziorik gabe, establezimendu iraunkorrak eragindako gastuei aurre egitea salbu, eta produktu edo zerbitzu guztiak edo haien zati bat entitate ez egoliarrez bestelakoentzako ez direnean, hurrengo arauak ezarriko dira:

a) Establezimendu iraunkorraren dirusarrera eta gastuak 28. artikuluko xedapenen arabera baloratuko dira, eta zerga-zorra finkatuko da araubide orokorrean eta artikuluko honetako aurreko zenbakietan xedaturikoaren arabera.

b) Hurrengo arauak aplikatuko dira, subsidia-rioki:

a) Establezimendu iraunkorraren xede den jarduerak eragindako gastu guztiei Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ondorio horietarako erabakiko duen portzentaia ezarri aterako da zerga-oinarria. Zenbateko horri gehituko zaio eranskinizaera duten dirusarreraren guztizko kopurua, korrituak eta kanonak esate baterako, non ez diren haren enpresa-xedeko, eta baita establezimenduari atxikitako ondare-elementuen ondoriozko ondare-gehikuntza eta murrizketak ere.

Arau honen ondoretarako, establezimendu iraunkorraren gastuak bere osotasunean zenbatuko dira, inongo gutxitze edo konpentsaziorik gabe.

b') Zerga-oinarriari karga-tasa orokorra ezarriz finkatuko da kuota osoa, eta ezin izango zaizkio araubide orokorrak erregulatzen dituen kenkari eta hobariak aplikatu.

5. Establezimendu iraunkorren jarduera erai-kuntza, instalazio edo muntaketa obrak badira, eta obren iraupena 12 hilabete baino gehiago bada, edota sasoiko edo urtaroko ustiapen ekonomikoak badira, edota baliabide naturalak ikertzeko jarduerak, hurrengo arauekin bat eskatuko da Zerga:

a) Araubide amankomuneko xedapenek establezimendu iraunkorrik gabeko ustiapen ekonomikoetatik ateratako errententzako ezarri arauekin bat, eta hurrengo arauak erabiliko dira ondorio horietarako:

a') Araubide amankomuneko xedapenak, establezimendu iraunkorrik gabe ateratako errentei buruzko sortzapen eta aitorten-aurkezpenen gainekoak.

b') Izaera orokorreko kontabilitate- eta erregistro-betebeharretatik jare geratuko dira subjektu pasiboak.

Hala ere, zerga-administrazioaren esku izan beharko dituzte Zerga honengatik ateratako dirusarrerren eta egindako ordainketen egiaztagiriak, eta hala badagokio, egindako atxikipenen eta konturako sarrerrenak ere, orobat horiei dagozkien aitortenak.

Era berean, entitateen indizean eman beharko dute izena eta zerga-helbidea eta gerta daitezkeen aldaketak deklaratu.

b) Hala ere, entitate ez egoliarrek Kapitulu honek establezimendu orokorrendako ezarri duen araubide orokorra aplikatzea aukera dezake. Edonola ere, derrigorrezkoa izanen da aurreko a) letran ezarritako sistema erabiltzea, establezimendu orokorrak berak ateratako errenten kontabilitate bereizirik ez duenean. Entitateen indizean izena emateko eskariarekin batera adierazi beharko da aukera.

c) Aurreko a) letrak aurreikusitako sistemari jarraitzen zaizkion entitateei inolaz ere ez zaizkie aplikatuko establezimendu iraunkorrik gabe ateratako errententzako ezarketa bikoitza ekiditeko hitzarmenek dakartzaten arauak.

162. Zerga-zorra.

1. Aurreko artikulua arabera finkatu den zerga-oinarriari 100eko 35eko karga-tasa aplikatuko zaio, establezimendu iraunkorraren jarduera hidrokarburoen ikerketa eta ustiaketa denean salbu, karga-tasa 100eko 40 izango baita orduan.

2. Horretaz gain, ateratako errentak atzerrira eramaten direnean, zergapetze osagarria ezarri ahalko zaie, 100eko 25eko tasarekin, establezimendu iraunkorraren errenten kargura transferitutako kopuruei, 161.1.a) artikulua aipatzen dituen ordainketak barne.

Araubide amankomunak establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentendako ezarri duen modu eta epetan burutuko da zergapetze osagarri hori aitortu eta sartzea.

3. Zergapetze osagarria ez zaie aplikatuko, elkarrekikotasuna medio, Europako Batasuneko kide den beste Estatu baten zerga-egoitza duten entitateek establezimendu iraunkorren bitartez erdietsitako errentei.

4. Zergaren kuota osoan aplikatu ahalko dira:

a) 59. artikulua aipatzen duen kenkaria, ezarpen bikoitza saihestekoa.

b) Zergaren araubide orokorrean aplikatu daitezkeen gutxitze, hobari, eta inbertsiorako eta enplegua sortzeko pizgarriengatik kenkariak.

c) Egindako konturako dirusarrerren eta zatikako ordainketen eta establezimendu iraunkorriari egin zaizkion atxikipenen zenbatekoa.

5. Establezimendu iraunkorrak dituen zehaztasunen arabera burutuko dira gutxitze, hobari, eta kenkariak, eta ezin izango zaizkie entitate bereko beste establezimenduei aldatu.

6. Atxikipen, zatikako ordainketa eta konturako dirusarrerrek, 4. zenbakiko a) eta b) letrak aipatzen dituzten kontzeptuak Zergaren kuota osoari kentzetik ateratzen den zenbatekoa gainditzen dutenean, zerga-administrazioak ofizioz itzuliko du gaindikina.

163. artikulua. Zergaldia.

1. Establezimendu iraunkorrak deklaraturako ekitaldi ekonomikoarekin bat etorriko da zergaldia, eta ezin izango da hamabi hilabete baino gehiago izan.

Bestelako zergaldirik deklaratu ezean, urte naturala hartuko da.

Zerga honen lehen aitortpena aurkeztu beharreko garaian jakinarazi beharko da zergaldia, eta bere horretan dirauela ulertuko da beren beregi aldatzen ez den bitartean.

2. Zergaldia amaitutzat joko da establezimendu iraunkorrek bere jarduerari uzten dionean edo bere garaian establezimendu iraunkorrean egin zen inbertsioa bestela desatxikitzen denean, eta baita establezimendu iraunkorra beste entitateen bati eskualdatzen zaionean ere, eta etxe nagusiak bere egoitza aldatzen duenetan.

3. Zerga sortuko da zergaldiaren azken egunean.

164. Zergaren aitortpena.

Establezimendu iraunkorrek beharturik egonen dira Zerga honegatik aitortpena bat aurkeztera, zergaren araubideak ezartzen dituen modu, leku eta epetan.

Aurreko artikuluko 2. zenbakiko kasuren bat gertatuz gero, aurkezteko epea izango da araubide amankomunak establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentendako eskuarki ezarritakoa, kasua gertatzen den egunetik aitzina, eta ezin izango da entitate-erregistroan baja ematea baimendu harik eta aipatu aitortpena aurkezten duen arte.

165. artikulua. Kontabilitate obligazioak, erregistroak eta formalak.

1. Establezimendu iraunkorrek kontabilitate bereizia eraman beharko dute, burutzen dituzten eragiketen eta atxiki zaizkien ondare-elementuen gainean.

2. Era berean, behartuta daude Zergaren araubide orokorraren menpe dauden subjektu pasiboei gainerakoan ezar dakizkiekeen kontabilitate-, erregistro- edo forma-betebeharrak kunplitzera.

166. artikulua. Konturako ordainketak.

1. Establezimendu orokorrak konturako ordainketen araubide orokorraren menpe izango dira, jasotako errentak direla-eta.

2. Era berean, atxikipenak eta konturako sarreak egin beharko dituzte, araubide orokorraren menpe dauden entitateak bezala.”

**7. artikulua.** Foru Lege honek indarra hartzetik aitzina gertatzen diren zergagaietarako, Oinordetzaren gaineko Zergari buruzko Arauko 178. artikulua 3. zenbakia hurrengo edukiarekin gertatuko da idatzita:

“3.a) Usufruktua edo jabetza soila eskualdatzen bada, beste likidazio bat egingo da, aurreko arauen arabera ebaluazioa egingo, eta kontuan izango eskualdatzailearen eta eskuratzailearen arteko lotura juridikoa, aurreko zenbakiekin bat egoki liratekeen likidazioak gorabehera.

b) Gozamediariak bere eskubidea jabe soilari eskualdatzen badiu, jabe soilari hauxe eskatuko zaio: jabetzaren zatiketa dela-eta sartzeko dagoen likidazioa eta usufruktua eskuratzeko erabili den negozio juridikoari dagokiona, bietan handiena.

Jabe soilak bere eskubidea gozamediariari eskualdatzen badiu, edota biek hirugarren bati eskualdatzen badiote, aipatu eskuraketei dagozkie likidazioak baino ez zaizkie eskatuko horri.

c) Jadanik onartuta dagoen usufruktu bati uko egitea, uko egitea soila bada ere, gozamediariak jabe soilari egindako dohaintzat hartuko da, zerga-ondorioetarako.”

### Xedapen Gehigarriak

**Lehena.** Inbertsioetarako erreserba berezia.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen IV. Tituluko XI. Kapituluko 2. Sekzioak dioen erreserba bereziko dotazioak egin ahalko dituzte subjektu pasiboei, 1998an hasitako lehen ekitaldian aterako kontabilitate-mozkinen kargura.

**Bigarrena.** Lan Sozietateak.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeak eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeak Lan Sozietate Anonimoak aipatzen dituztenean, martxoaren 24ko 4/1997 Legearen arautzen diren Lan Sozietateez ari direla ulertuko da.

2. Lan sozietateek, ateratako mozkinen ehuneko 25a, gutxienez, Erreserbako Fondo Bereziko gordetzen badute zergagaita gertatzen den ekitaldian, hurrengo onurak izango dituzte Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan:

a) Eraketa eta kapital-gehituntza sozietate-eragiketak salbuetsiak izango dira, eta baita baziren lan sozietate anonimoak erantzukizun mugatuko lan sozietate bihurtzeko eragiketak ere, orobat baziren lan sozietate anonimoak Lan Sozietateei buruzko martxoaren 24ko 4/1997 Legearen xedapenetara egokitzeko eragiketak.

b) Maileguak, obligazio eta bonoen bitartez gauzatuak barne, eratzeko eragiketengatik ehuneko 99ko hobaria, maileguen kopurua erabiltzen baldin bada jarduera garatzeko behar diren aktibo finkoetan inbertitzeko.

c) Lan sozietateko langile-bazkideen gehien-goia zein enpresatik datorren, hartan jatorria duten ondasunak zuzenbideak onetsitako edozein

modutan eskuratzeko eragiketek hobari bera izango dute.

d) Hobari bera, egintza juridiko dokumentatuetan, sozietate anonimo edo erantzukizun mugatuko bat lan sozietate kalifikatu dela dokumentatzen duten eskriturengatik, edota lan sozietate anonimoak erantzukizun mugatuko lan sozietate bihurtu direla, eta alderantziz, dokumentatzen dute-nengatik.

3. Aurreko zenbakiek xedatua aplikatuko da Lan Sozietateei buruzko martxoaren 24ko 4/1997 Legeak indarra hartzen duenetik aitzina, dagokion sozietatea laboraltzat kalifikatu den unea gorabehera.

### **Xedapen Iragankorra** **Prezioa geroratu zaien ondare-gehikuntzen** **arabide iragankorra**

1997ko urtarrilaren 1a baino lehenago azalera-tu diren ondare-gehikuntza irregularrak, kostu bidezko eskualdeketatik heldu direnak eta prezioa, guztiz edo hein baten, geroratu zaiena hurrengo arauen menpe izango dira, kobraketak aipatu data baino beranduagoak direnean, subjektu pasiboak eskubidea sortzen den uneari inputatzea erabakitzen ez badu salbu:

1.- Maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen V. Tituluko I. Kapituluko 4. Sekzioaren arauak, 1996ko abenduaren 31n indarrean zirenak, erabiliko dira ondare-gehikuntza finkatzeko. Hala ere, aipatu Foru Legeko 40. artikuluan 2. zenbakiko b), c) eta d) letretan aurreikusitako portzentaia %14, 28, %25 eta %11,11 izango dira, hurrenez hurren.

2.- Ateratzen den gehikuntzari hauxe kenduko zaio: 1997ko urtarrilaren 1aren aurretik zergapetu denaren kopurua.

3.- Aurreko arauan esaten den eragiketarik ateratako emaitza positiboa kobraketak gertatzen

diren ekitaldiei egotziko zaie, kobraketan zenbatekoaren heinean.

4.- Ekitaldi bakoitzari egozten zaion gehikuntzaren zenbatekoa zerga-oinarrrian sartuko da eta aipatu ekitaldian indarrean diren arauekin bat kargatuko da.

5.- 2. arauan esaten den eragiketaren emaitza zero edo negatiboa denean, ez zaio inongo kargarik ezarriko Foru Lege honen indarraldian sortuko litzatekeen gehikuntzaren zatiari.

### **Azken Xedapenak**

**Lehena.** Foru Lege honen edukiaren kontra doazen lerrun bereko edota beheragoko xedapen guztiak derogaturik geratuko dira, hurrengoak bereziki:

– 1989ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko maiatzaren 2ko 3/1989 Foru Legeko 62. artikulua.

– Maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legearen 43. artikuluko 1. zenbakiko i) letrako azken lerroaldea eta Foru Lege bereko 51. artikuluko 3. zenbakiko azken lerroaldea

– Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 19/1986 Foru Legearen Hamazazpigarren Xedapen Gehigarriko 1. zenbakia.

– Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 67. artikuluko 3. zenbakia.

**Bigarrena.** Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar beste xedapen egiteko esku ematen zaio Nafarroako Gobernuari.

**Hirugarrena.** Foru Lege honek indarra hartuko du, legeak aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

|   |  |
|---|--|
| <b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b><br><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b><br>Urte bat ..... 5.800 pta.<br>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » .<br>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » . | <b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b><br><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b><br>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»<br>Arrieta, 12, 3<br>31002 IRUÑEA |
|---|--|